

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2023-08-04 OSTIRALA / 873. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM





EUGENIA
ARTSEMENKA

"Hainbeste urtez hemen bizitzen, eta oraindik ez naiz bista hauekin aspertu"

Bielorrusian jaiotako ihabardarra, ez da oso urruti joan behar herriko txoko gogokoenera joateko



Erkuden Ruiz Barroso

Eugenia Artsemenka Bielorrusiako Gomel hirian jaio zen. "Lehen denak bat zirenez, Bielorrusia, Moldavia, Ukraina eta abar, nire familia nahasia da: gurasoak Moldaviakoak, ni Bielorrusiakoak...". Bere senarra ere Moldaviakoa da, eta bera "urte luzez" Moldavian bizi izan zen. "Gero, Bielorrusiara itzuli nintzen".

Gomel "hiri handia da", izen bereko eskualdeko hiriburua da, eta 500.000 biztanle inguru ditu. "Hala ere, oso goiz lekualdatu ginen Txernobyleko istripua izan zelako, eta erradiazioa zela eta, Moldaviara joan ginen bizitzera". Bertan sei edo zazpi urte bizi izan ziren, eta, ondoren, Bielorrusiara itzuli zen, ikastera. "Gero, Moskura joan nintzen, unibertsitatean ikastera; eta, aldi berean, lan egiten nuen". Bere lehenengo alabaz, Elia, haurdun zegoela, amak Ihaba-

rerra etortzeko esan zion: "Berak bi urte zeramatzan hemen, eta etortzeko esan zidan. Mosku haurrekin oso zaila da, are gehiago atzerritarra zarenean". Hemen "desberdina" dela esan du. "Han ikasle nintzela, askotan, poliziak paperak eskatu zizkidan. Hiru hilabeteko tartea ematen ziguten bakarrik". Ihabarrera iritsi zirenean, "desberdintasun handia" nabaritu zutela esan du.

2013ko maiatzean iritsi zen Eugenia Ihabarrera. "Badakizu bizitzan zehar erabakiak hartu behar ditugula? Hau hartu dudan erabakirik hobereana izan zen. Haurrendako, izugarria da". Oso zoriontsu direla esan du. "Lehenengo urteetan itzultzeko dudak izan genituen, gogorrakoak izan baitziren; baina, gero, bizitza honetara ohitzean, itzuli, eta dena oso desberdina da".

Amaren urratsak jarraitu zituen Eugeniak. "Bera hemen

zegoen, bere bikotekidearekin, eta hemen gelditu ginen. Pixkanaka, hamar urte pasa dira". Elia, alaba helduena, Ihabarren jaio zen, baita txikiena ere, Adele. "Beraiek ez dute beste mundu bat ezagutzen, hau da beraien bizitza. Iruñera bizitzera joango garela esan, eta ez dute nahi; hemen bizi nahi dute".

Bistak

Etiketetik aterata gabe, Andiako eta Aralarko bistak ditu Eugeniaren familiak. Hala ere, "beti bista desberdinak dituzu, beti da desberdin. Goizean jaikitzen naizenean esaten dut: ea gaur zer tokatzen zaigun". Egun eguzkitsuak, egun lainotsuak... paisaia guztiz aldatzen dela esan du: "Dena aldatzen da; ez gara ezta aterata behar ere". Bista horiei begira, txoko bat dute etxearen ondoan.

"Lagunak eta herrikideak etortzen dira, eta hemen den-

bora pasatzea gustatzen zaigu. Barbakoak egiten ditugu, eta haurren lagunak eta klasekideak ere askotan etortzen dira; oso gustura egoten gara. Pizinatxoak ere jar daiteke...". Ihabarrera iritsi zirenean, "ez genekien non biziko ginen, baina asko gustatzen zaigu. Toki hau izugarria da. Ez dugu ezer hoberik aurkituko". 40 minututan hondartza dago; eta, elurra nahi izatekotan, mendira baino ez dela igo behar esan du Eugeniak. "Eta dena berde-berdea da; hiritan, ordea, dena grisa, zementuzkoa, da".

Eugeniak esan duenez, hirian ezingo zutela egin txokoan egiten dutena. "Herria denez, beste bizitza bat da. Ni herriarekin gelditzen naiz. Lilurata gaude". Hainbeste urteren ondoren herriaren erritmoa hartu du, eta ez duela aldatu nahi esan du bere herriko txotik.

"Badakizu nola bizitzan erabakiak hartu behar diren? Hau hartu dudan hobereana izan zen"



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





ERROTZ

FESTAK

ABUZTUAK 19 Larunbata

12:00 Ginkana.
13:00 Txupinazo.
14:30 Herri bazkaria, karpan.
17:00 Mus, briska eta partxis lehiaketa, Oskia tabernan.
19:00 Gargarado dastaketa.
20:30-21:30 Mexikoko musika Roberto Urrutiarekin.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Gai librearekin mozarroen afaria, karpan.
00:30-02:30 Zuzeneko musika, Mr. Coverekin.

ABUZTUAK 20 Igandea

11:00 Meza, San Babil elizan.
14:30 Norberak prestatutako bazkaria. Bazkalostean, musika. Oharra: animatu errezetak plazan bertan egitera.
17:00-20:00 Joko puzgarriak eta giza ekorgailua, frontoian.
18:30 Txokolatada, plazan.

ABUZTUAK 21 Astelehena

12:00 Herrian zehar kalejira, behetik gora. Amaieran kontzejuak eskainitako auzatea, karpan.
17:30 Txapela jaurtiketa.
21:00 Afaria ondarrekin.

ETXEBERRI

ABUZTUAREN 8TIK 10ERA

FESTAK

SATRUSTEGI

FESTAK

ABUZTUAK 18 Ostirala

20:00 Txupinazoa.
20:30 DJ Felixekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:30 DJ Felixekin dantzaldia.

ABUZTUAK 19 Larunbata

11:30 Puzgarriak eta photocalla.
12:00 Patata tortilla txapelketa, herri bozketaren bidez eta photocalla.
13:00 Futbolin txapelketan.
17:30 Eskorgen ginkana.
Oharra: eskorga tuneatu eta parte hartu.
19:00 Pilota jaialdia.
20:30 DJ Felixekin dantzaldia eta haur mozarroak.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 DJ Felixekin dantzaldia eta mozarroak.

ABUZTUAK 20 Igandea

12:00 Meza nagusia.

13:00 Otamena eta Luissiana mariatxia.

17:30 Lorena Arangoaren eta Aintzane Baleztenaren *Ahora es tiempo de que vuelen libres y en paz* antzezlan.
19:00 Laranjen lasterketa.
20:00 DJ Felixekin dantzaldia.
22:00 Gaixoa ni.

HIRIBERRI ARAKIL

IRAILAREN 7TIK 10ERA

FESTAK

IHABAR

ABUZTUAK 25 Ostirala

22:00 Antzerkia, plazan.
Ihabarko udako antzerki tailerraren antzezlaren emanaldia.

ABUZTUAK 27 Igandea

22:00 Antzerkia, plazan.
Ihabarko udako antzerki tailerraren antzezlaren emanaldia.

FESTAK

IRAILAK 1 Ostirala

18:00 Txupinazoa eta kilikiak.
18:30 Frontenis txapelketako finala.
21:00-22:00 Eztitan taldearekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:30-04:30 Eztitan taldearekin dantzaldia.
04:30 Ingurutxo eta tapia gaineko jota.

IRAILAK 2 Larunbata

13:00 Jauziak eta plaza dantzak Tirikitraukirekin.
14:30 Kaldereteak.
18:30 Dystopia Elektrokaragarekin kalejira: plaza, baltegi, San Juan iturria, San Esteban iturria, elkarte.
00:30-04:30 Trikitiens taldearekin dantzaldia.

IRAILAK 3 Igandea

13:00 Duo Jaliscoren kontzertua eta otamena.
14:30 Ingurutxo.
15:00 Herri argazkia.
17:00 Mus txapelketa.
17:30 Pala eta esku pilota partiduak.
20:00-23:00 Mikel Kinterorekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa eta parrillada.
23:00 *Milagros Valentina* antzezlaren emanaldia.

IRAILAK 4 Astelehena

12:00 Haurrentzako jolasak.

13:00 Otamena.
14:00 Ingurutxo txikia.
14:30 Paellada eta bingoa.
16:00-20:00 Puzgarriak, txokolatea, buruhandiak eta mozarroak.
20:00-23:00 Modestorekin dantzaldia.
22:00 Parrillada.

IRURTZUN

ABUZTUAK 10 Osteguna

20:00 Bakarrizketa, Pikuxar plazan.
Txikiren bakarrizketa saioa.

ABUZTUAK 13 Igandea

20:00 Kontzertua, Pikuxar plazan.
Anekdotas taldearen kontzertua.

ABUZTUAK 25 Ostirala

09:00 Bizikleta martxa, plazatik.
Stop AHT zundaketak! Lurraren alde Sakana, Goierri eta Lautada bizirik!
Bizikleta martxa. Lehenengo etapa: Irurtzun Olazti.

ABUZTUAK 27 Igandea

17:00 Bizikleta martxa, plazan.
Stop AHT Zundaketak! Lurraren alde Sakana, Goierri eta Lautada bizirik!
Bizikleta martxaren amaiera.
20:00 Ikuskizuna, Pikuxar plaza.
Eguzkilo mitologia eta jazz ikuskizunaren emanaldia.

ABUZTUAK 31 Osteguna

20:00 Kontzertua, Pikuxar plaza.
Madame Birrots taldearen kontzertua.

IRAILAK 2 Larunbata

05:30 Mendi irteera, autobus geltokitik.
Midi d'Ossau eta Peyreget tontorraren inguruko 20 kilometroko eta 1.300 metroko desnibeleko eta Ayouseko lakuak 15 kilometroko eta 700 metroko desnibeleko itzulia. Itzulerak, 20:30ean. Autobusaren prezioak: bazkideak eta mecnakideak 10 euro eta gainerakoak 15 euro. Izena eman: Pikuxar tabernan abuztuaren 30era baino lehen.

ERAKUSKETAK

ABUZTUAREN 16RA ARTE

Irati Moreno Blasen *El vértigo del corazón* erakusketa, Pikuxarren.

ABUZTUAREN 17TIK

IRAILAREN 27RA

AHTrik ez 30 urte borrokan erakusketa, Pikuxarren.

*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Aurreko astean murriztearen inguruan arituko ginela esan nuen eta, hara non, zuen festekin lotuta sortu zait aukera! Zuen herrietako giroan murgilduta ibili arren, ikusi dut egoera iluntzen duen ohiko jardun bat: festetako bazkarietan erabilerak bakarrek mahai tresneria zegoen!

Horrelako jarduerak hondakinak sorrarazten dituzte etengabe eta, nola ez, inpaktu negatiboa ingurumenean. Esan beharra dago inpaktua ingurumenean eragina duen eta ingurumen-oreka hausten duen giza jardura baten emaitza dela.

Mahai-tresneria berrerabilgarria erabiliz gero, hondakinak gutxituko genituzke. Horra hor murriztearen funtsa. Pertsonen esku-hartzea ezinbestekoa da hondakin sorreraren kontrola izateko. Horiek horrela, produktu bat eskuratzekoan produktu horrek beharrezkoak ez dituen materialen erabilpena ekiditea da xedea. Izan ere, murrizteak beharrezkoak ez diren hondakinak ez sortzea du helburu.

Hala ere, hondakinak sortzen ditugu ezinbestean. Hortaz, horien kudeaketa egoki baten beharra ere badago. Baina kudeaketa eraginkorragoa izateko murrizketarekin batera berrerabilpena eta birziklapena ezinbestekoak dira. Berrerabilpenaz hitz egiten dugunean zerbait berriro erabiltzeaz ari gara, lehen betetzen zuen funtzioarekin edo beste helburu batzuekin. Bestalde, birziklatzearen helburua hondakinak produktu edo lehengai bihurtzea da.

Ingurumena ahalik eta gehien errespetatzeko garrantzitsua, beraz, pertsonen egunerokotasunean dituzten portaera eta jarrerak aldatzea da.

Mank
sakanan



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakin Funtzak finantziatu du. Hondakin Funtsa bereizi ez diren hondakinak zaborteagatik isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



ILYASS
BOUCHAHAD

"Riftarra bazara, paseatu eta isilik egon; besterik ezin duzu egin"

Riften jaiotako irurtzundarrari herri guztia gustatzen zaio

Alfredo Alvaro Igoa

Marokok bere menpe duen iparraldeko eskualdea da Rif. Rifeko Ajdir hiriburuaren ondoan dagoen Al-Hoceima hirian jaio zen Ilyass Bouchahad. Bouchahadek gogoratu du Abd el-Krim buruzagiarekin Rif errepublika izan zela 1921 eta 1927 artean. Espainiarrek, frantziarren laguntzaz, riftarrei aurre egin zieten. Horretarako, besteak beste, espainiarrek arma kimikoak erabili zituzten.

Hiriak baditu zenbait hondartza, "beroa egiten du, eta hondartzara joaten gara". Bouchahadek azaldu duenez, "Hondartza

inguruan aberatsak bizi dira. Erregea joaten bada, hondartza on batzuk hartu, eta ezin zara sartu. Berarendako bakarrik dira". Al-Hoceiman arrantza asko dago. "Arrantza ontzi asko daude, baina lan gutxi dago. Beste

"Han bizi nahi dut, baina ezin dut. Eutsi, eutsi, eutsi, baina, azkenean, etsi; han ez dago etorkizunik"

kosta batzuetara eraman dituzte". Bouchahadek jakinarazi duenez, "Al-Hoceiman behartsuak ezin dira bizi. Arrantzaten den guztia kanpoan saltzeko da, eta gelditzen den arraina eskasa eta oso garestia da".

Bouchahadek azaldu duenez, "Oporrak pasatzeko primerako tokia da Al-Hoceima. Baina bertan ezin zara bizi: ez dago lanik, Marokorekin arazoak... Mouchine Fikri, arrain saltzaile ibiltaria, zaborretako kamioi batek birrinduta hil zen 2016ko lastailan, polizia konfiskatutako salgaia berreskuratzen saiatzen ari zela". Protestak piztu ziren. "Oraindik jende asko dago kartzelan. 20 urtera arteko zigorrak dituzte. Rifeko bandera baduzu, kartzelara. Polizia asko dago ere. Horregatik, ezin zara han bizi. Riftarra bazara ezin duzu trago bat hartu, ezin duzu hitz egin; paseatu eta isilik egon, besterik ez".

Espainiarrek botatako bonba kimikoen ondorioz minbizi tasa izugarria da Rif. "Duela sei urteko protestetan onkologia ospitalea, gazteendako lanpos-

tuak, unibertsitatea eta beste eskatzen ziren. Gaur egun beste hiri batzuetara joan behar dute sendatzera eta ikastera. Marokorrek nahi dute gure lurretik ti-ta atera gaitezela".

Patera

Irurtzundarrak aitortu duenez, "han bizi nahi dut, baina ezin dut. Eutsi, eutsi, eutsi, baina, azkenean, etsi; han ez dago etorkizunik". Beste dozena bat pertsonarekin batera pateran abiatu zen, tartean adin txikiko bat zegoen. 27 orduko zeharkaldiaren ondoren Motrilera iritsi ziren. Polizia etxean hiru egun eman zituen, eta beste 17-18 egun pandemiagatik ezarritako berrogeialdian, Malagako hotel batean. Handik Irurtzungo lehengusuegana etorri zen. Orduetik ez da sorlekura bueltatu.

Bouchahad duela bi urte eta zazpi hilabetetik da irurtzundarra. Lehen urte erdia-edo lehengusuekin bizi izan zen. Egokitzeko laguntza izan zen familia bertan izatea. "Ondoren, laguntza eman, eta beste lagun batekin, pisua hartu genuen".

Ziurtatu duenez, "askoz hobe nago hemen. Marokon 30 urte pasa ditut eta sekula ez naiz orain bezain zoriontsu izan. Dirua, lana, dena daukat. Marokon hamar orduko lanaldia-gatik behar bada 10 euro ordaintzen dizute. Edo orain ez du ordaintzeko dirurik eta egun batzuk itxaron beharko duzu. Eta protestatuz gero, ez zaituzte berriro lanerako hartzen".

Irurtzun guztia gustatzen zaio Bouchahadi. "Dena onerako aldatu da. Hau txalet baten modukoa da". Sorlekuarekin zerikusirik ez du: "hemen mendia dago, han aspaldi ez duela euririk egin. Itsasoa alde batean hori koloreko lurra bestean. Hemen go berdea zoragarria da. Hemen jendeak agurtzen du. Han 'kaixo' esan eta erantzuten dizute: 'ezagutzen nauzu?' Hiri da hura. Hemen jende gutxi eta denak ezagunak". Lagunekin, lehengusuekin, familiarekin parkean hizketatzen egoten da. "Hemen aske hitz egin dezaket, Al-Hoceiman ezin duzu". Oraindik ez du kuadrillarik baina harreman sarea zabaltzen ari da.



MIREN
JIMENEZ
GARCIA

"Hemen beste bizi kalitate bat dago"

Iruñean sortutako irintarrak, etxeko lorategia du gogoko, paisaiagatik

Alfredo Alvaro Igoa

Donibane auzoan jaiotakoa da Miren Jimenez Garcia. Auzoko oroitzapen "zoragarriak" ditu Jimenezek: "soroz inguratuta geunden. Etxe baxuak zeuden. Gure etxeak San Alberto kooperatibakoak dira (San Alberto Handia kalea). Etxe atzean artaldeak ikusi izan ditut". Txikitari "oso ongi" bizi izan zirela oroitzen du. "Donibaneko Alde Zaharra herri baten modukoa da. Gure inguru hartan, denok elkar ezagutzen segitzen dugu".

Jimenez "herri" batetik beste herri batera aldatu da: Irañetara. "Amaren gaixotasunaz aparte, urteak generamatzan herri batera bizitzera lekualdatu nahi genuela. Semeak oraindik ikasten zeuden, gure ekonomia egonera ez zen egungoa bezalakoa... Baina aspaldi gustatzen zitzaigun ideia". Gainera, bere semeak urteetan pilotan jolastu dute eta

ibarreko txapelketetan jokatu zuten. Irabazitako txapelaren bat ekarrarazi zidaten. Oso harro daude. Sakanarekin harreman handia zuen Jimenezek: "Joanes Bakaikoa pilotaria ezagutzen genuen, Joxi aita, asko. Sakan-darrekin bagenuen harremana, eta ibarra pixka bat ezagutzen genuen".

Etxeak Uharte Arakilen, Lakuntzan, Unanun... begiratzeko egon baziren ere, Irañetaren alde egin zuten "ia-ia duda egin gabe". Jimenezek azaldu duenez, "Irañetaren oroitzapen zoragarria nuen. Oso herri eroso iruditzen zitzaidan. Gainera, ama gurgildun aulkian ibiltzen da. Dena batu zen". Batetik, Iruñea, "Irurtzun eta Altsasarekin lotura; hirurak 'salbatzen zaituzten' nukleoak dira. Oso gertu zaude". Hori izan zen etortzeko arrazoi nagusia. Bestetik, "etxea oso eroso da". "Eta, jakina, ingurua liluragarria

da. Gainera, etxeko lorategira atera eta paisaia ikusi nuenean, bertan gelditzea nahi izan nuen. Maitemindu ginen, asko gustatu zitzaigun". Azaldu duenez, "ama gurgildun aulkian eramanez ia iturbururaino joan naiten paseatzen. Gauza asko elkartu ziren".

Paisaia

Bi urte dira irintarrak direla. "Jendea oso jatorra da, eta oso ongi egoten da. Paseoak daude iturburura, hariztira, Uharte Arakilerara... Ihabarrerantz ez dut

"Ni ez naiz batere kalezalea; Iruñean oso gutxi ateratzen naiz. Baina hemen kalera ateratzeko desiratzen nago"

jotzen, errepidea delako-edo". Herriko txokorik gogokoena etxean bertan du Jimenezek: lorategia. "Horra atera, eta Beriain eta Aralar ikustea zoragarria da. Ez dugu toki ederragorik opatu behar. Lorategiko ikuspegi ikusi, eta erabaki genuen ez genuela gehiago bilatzen segituko". Aitortu du Madalen Haitz ere asko gustatzen zaiola.

Jimenezendako "deskribaezina" da sentitzen dutena. Gogoko paisaia ikusteko, askotan bazkaldu eta afaltzen dute kalean, "eta aldamenak harritu egiten dira, ez baitute halakorik egiten. Gu, Iruñean, nitxo batean bizi ginen. Hona iritsi, halako paisaiadun lorategia izan eta etxe barruan bazkaldu? Niretako, bekatua da. Ahal den guztietan jatorduak kalean egiten ditugu". Ahal duten bizitarik gehien egiten dute lorategian. "Ni ez naiz batere kalezalea; Iruñean oso gutxi ate-

ratzen naiz. Baina hemen kalera ateratzeko desiratzen nago". Ama gaixo izanda, "behartuta nago etxean", baina halako espazioarekin "bestelako askatasun bat sentitzen da. Lorategira atera, belar bat kendu, makina hartu, landarea daramazula... Egitekoen zama asko arintzen dit". Iruñeko pisuan semea dago, eta han gelditzea bazuten. "Baina, aztertu, eta Irañetara etortzea erabaki nuen. Nahiz eta Iruñean denda eta mediku ugari izan ondoan, autoarekin 20 minutuan han nago. Larrialdi bat? 20 minutuek ez gaituzte ezertaz libratuko. Hemen beste bizi kalitate bat dago, askoz handiagoa. Alde handia dago. Ez du zerikusirik. Isiltasuna, txorien kantua... Hori da ohikoena. Autoreen bat noizean behin hemen; trenak aldian-aldian. Iruñean, Villavesak, klaxon hotsak... Honek ez du zerikusirik. Pozik gaude".

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazta

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazior@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



ZULEMA
CONDORI
ZAPATA

"Lagunekin Uharteko herrigunean biltzen naiz"

Uharte Arakilgo mendi eta xendetatik paseatzea oso gustuko du Zulema Condorik. "Ingurune guztia ezagutzen dut"



MAIDER BETELU GANBOA

Zulema Condori Zapataren bizitza ez da erraza izan. Mina Kamin (Cochabamba) jaio zen, meategian. Aitak istripua izan zuenez, Cochabamba hirira joan ziren bizitzera. Zortzi urte zituela hasi zen lanean, haurrak zaintzen.

Ahal zuenean joaten zen eskolara. "Ikasketak ez izatea beti izan da nire penarik handiena".

Oso gazte ezkondu zen. "Aitari egunero bazkaria eramaten nion fabrikara. Behin bizikleta apurtu zitzaidan, eta aitaren lankide batek motorrean eramainduden.

Aita haserretu zen, ea gizon horrekin zer egin ote nuen, eta jo ninduen". Hura jakitean, lankideak Zulemari ezkontzea proposatu zion. "Ongi hartu nuen. Pobreziatik atera nahi nuen. Lau seme-alaba izan genituen, eta adopzioan hartutako beste bat, nire bigarren haurra erditzean ospitalean umezurtz geratu zen mutil bat". Baina 11 urte geroago, Santa Cruzera bizitzera joan zirenean, guztia pikutara joan zen. "Senarra nazioarteko enpresa batean hasi zen lanean, obretako arduradun, eta beste emakumezko batzuekin hasi zen harremanetan. Kargu hartu nionean, tratu txarrak hasi ziren. Berak ikasketak zituen, eta umiliatzen ninduen; analfabetoa nintzela eta nirekin ezkondu izanaz damutzen zela leporatu zidan. Etxetik joan zen".

Seme-alabak aurrera ateratzeko lanean hasi behar izan zuen Condorik. Eskolan atezaintza eta garbiketa lanak egin zituen, eta eskolan kiosko txikia zabaldu zuen. Etxea erosi behar izan zuen, enpresak senarrari utzitako etxe batean bizi baitziren. "Gutxika, dendetxo bat zabaldu nuen etxean. Koadernoak saltzen hasi, eta denborarekin, burdinge txikia jarri nuen. Inurritxoak bezala lan egiten genuen".

Baina senarra bueltatu, eta tratu txarrak itzuli ziren. "Behin labana batekin bizkarrean jo ninduen. Ez zidan zauririk egin, baina seme batek ikusi zuen, hirugarrenak. Semeak esan zidan jende asko espainiar esta-

tura etortzen zela lanera, eta nik Boliviatik atera behar nuela; bestela, aitak ni akabatuko ninduela. Ihes egiten ez banuen, berak ez zuela ikasten jarraituko, eta aitari aurre egingo ziola". Semeak bidaiaren tramiteak egin zituen. "Bi seme helduenak hiriburura joan behar ziren ikastera, eta alaba nagusia ezkondua zegoenez, bera utzi nuen guztiaren kargu. Alaba gazteenak bihotzean arazoak zituen, ebakuntza egin berri zioten. Pena handiena berak eman zidan. Ez nuen joan nahi; negarrez hartu nuen hegazkina".

2004an iritsi zen Alacantera. "Klimarengatik aukeratu zuen semeak. Jende nagusia zaintzen hasi nintzen. Lanekin zorte handia izan nuen. Semea ekarri nuen, baina lanean hasi nahi zuela, eta Boliviara bueltatu nuen. Gero alaba etorri zen. Eta gauza bera gertatu zen. Nik oso argi nuen lehenengo gauza ikasketak zirela. Bostek ikasi dute, eta harro nago".

2007an iritsi zen Izurdiagara, Alacanten nagusi izandako batek familia ezagutzen zuelako. "Iruñera iritsi, eta sekulako elurtea zegoen. Lehen aldia zen elurra ikusten nuela. Izutu nintzen, autobusa hartu eta egun berean Alacantera itzuli nintzen. Baina lasaitu, eta berriro Izurdiagako bidea hartu nuen". Izurdiagan bost urte egon zen emakume bat zaintzen. "Familia izugarri maite ninduen, eta nik familia gisa maite ditut. Paperak egin zizkidaten". Emakumearen heriotzaren ondoren Zubietarrekin

ia zazpi urte egin zituen Uharte Arakilen. Etxaurin bi urtez ere egon da, eta egungo etxean, Etxeberrin, urtebete pasa darama.

Plaza, bilgune

Uharte Arakilen pisua erosi, eta "gustura" bizi da Zulema. "Ana Etxarri lagun mina dut, ahizpa izango balitz bezala. Eta baita Nieves eta Marian ere. Beraiekin gelditzen naiz herrigunean, eta tabernan biltzen gara. Uhartearrek oso ongi tratatzen naute, jende ona da. Uharteko eliza, iturria, kaleak... gustuko ditut, baina plaza aukeratuko nuke; bilgune polita da". Gehien gustatzen zaiona paseatzea da, mendira joatea. "Beriainera ez naiz iritsi, baina San Miguel, San Vicente, San Bartolome... gainontzeko guztia ezagutzen dut".

Ez du bere burua Bolivian ikusten. "2018an itzuli nintzen behin betiko, baina ez nuen nire burua bertan ikusten. Urte bete eta hiru hilabete pasata, Uhartera itzuli nintzela esan nien. Seme-alabek ez zuten ongi hartu. Ni eurengeatik horrenbeste sakrifikatu eta gero, orain ni zaindu behar nindutela sentitzen zuten. Baina onena opa nien eta etorri nintzen".

Bere ametsa alaba txikia Uhartera bizitzea etortzea litzateke. "Pozik biziko litzateke nirekin. Bi aldiz eskatu dut bisatua, baina atzera bota didate. Ea lortzerik dugun; horrek zoriontsu egingo ninduke". Egun, erraina eta bilobak daude berarekin, eta "bilobez gozatzen" ari da.

UHARTE ARAKIL

55. URTEURRENA 55ª EDICION

2023-08-27

ARTZAIN EGUNA 2023

NAFARROAKO ARDI LATXEN XXXVIII. ERAKUSKETA ETA ESNE EKOIZPENAREN LEHIAKETA

LATXA ARRAZAKO ARDIAREN ESTATUKO XVIII. LEHIAKETA

NAFARROAKO ARI LATXEN ESNE GORDINAREKIN EGINDAKO XLII. GAZTA LEHIAKETA

NAFARROAKO ARTZAIN TXAKURREN LV. LEHIAKETA
Geinberan ospatuko da arratsaldeko 17:00etan

ANAKAZALAK:

ABALAR MENDI Kultur Alkartasuna

LAGINTZALAK:

Uharteko Arakilgo Udala

Reyno de Navarra Euzkadi

Nafarroako Erregekoa

www.vibnnavarra.es

meena

IDIAZABAL

NAFARROAKO GOBERNUA

Landa Garapena, Ingurumenaketa

GOBERNO DE NAVARRA

Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local

NAFARROAKO INTERES | NAFARROAKO INTERES TURISTIKOKO FESTA

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du



RODRIGO
ALVES
ALBION

"Toki lasaia da, hori da gehien gustatzen zaiguna"

Ubeldetxabal txokoa da Brasilen jaiotako arbazuarraren leku gogokoena

Erkuden Ruiz Barroso

"Herri batekin alderatuta jaiotzen hiria oso desberdina da". Brasilgo ipar-ekialdean dagoen Montes Claros hirian jaiotzen Rodrigo Alves Albion. Ez da Minas Gerais estatuko hiriburua, baina probintziako iparraldeko hiriburua kontsideratzen da. "Minas Gerais hirian 500.000 biztanle ditu, unibertsitate hiri bat da, zazpi unibertsitate ditu, eta ondoko herri eta hirietatik bizitzera eta lanera joaten dira". Herri batekin alderatuta "mugimendu asko" dagoela esan du Rodrigo: "Tabernak, dendak, zerbitzuak...". Kontran, "bakean eta lasai" egoteko tokirik ez dagoela esan du ere. "Herri batean oso lasai zaude, baina bertan hemendik hona egoten zara, trafiko handia dago, motorrak, autoak...".

Rodrigoren aitaordea bertakoa da, "eta nire ama ez dakit duela zenbat urte etorri zen; hogeitau urte", eta duela hamasei bat

urte Rodrigo etorri zen. "Ezkondu ziren eta hemen familia osatu genuen". Zortzi urte zituen eta orain herria "pixka bat txiki" gelditzen zaion arren, haurra zenean Arruazu miragarria zen: "Bizikletan ateratzeko askatasuna, ibaira etortzen ginen arratsalde pasa eta arrantza egitera, ibai ondoko muinora igotzen ginen... Orain begiratzen dut eta ez dakit nola igotzen ginen". Gaztea zenean Brasilera itzuli zen eta bertan lau urte bizitzen egon zen.

"Hemen denok elkar ezagutzen dugu eta jendeak oso ongi hartu ninduen. Nire lehenengo etxea

"Udan, gehienbat, etortzea gustatzen zaigu, oinak bustitzera eta denbora pasatzera"

da, egia esan". Aukera dutenean Brasilera bisitan itzultzen dira, bi edo urtez behin. "Bertan sende asko ditut eta joaten naizenean familiarekin egoteko da, ez dakigulako noiz itzuliko garen". Brasil "gutxi" ezagutzen duela esan du, "tokiak ikusi baino familiarekin egotera joaten gara, eta jatera; bertako janaria desberdina da".

Lasaitasuna

"Harriak" deitzen diote Ubeldetxabal zonaldeari. "Hau da nire leku gogokoena. Udan, gehienbat, neskalagunarekin eta haurrarekin etortzea gustatzen zaigu, oinak bustitzera eta denbora pasatzera". Toki lasaia dela esan du Rodrigok, eta hori da, hain zuzen, txokoaz gehien gustatzen zaiona: "Lasaitasuna". Gainera, herritik gertu dago eta arratsaldea plazan pasa ondoren, etxera joan aurretik bertatik pasatzen dira "pixkatxo bat lasaitzera".

Haur garaiko oroitzapenak ere toki honetan ditu Rodrigok. "Askotan egoten nintzen hemen. Denbora asko pasatzen genuen; bainatzen ginen, arrantza egiten genuen...". Oso toki polita dela esan du, eta orain bainatu ahal izateko "putzu" gehiago egin dutela nabarmendu du. "Haurrari bainatzea gustatzen zaio; ni orain ez naiz bainatzen". Hala ere, bertan egoteko eta "gustura" denbora pasatzeko primerako tokia dela esan du arbazuarrak.

GAZTANDEGIA

630 631 882
info@albigaztak.com

www.albigaztak.com

ARRUAZU



SOKHNA
DIAGNE

"Niretako, Lakuntzako pikota oso berezia da, baita plaza ere"

Pikotan edo Lakuntzako plazako edozein bankutan eseri eta gustura egotea du gustuko Sokhna Diagnek



Maidar Betelu Ganboa

Thiès-en (Senegal) jaio zen Sokhna Diagne, Dakar hiriburutik 90 kilometrorra, ekialdera. 320.000 biztanlerekin, Senegalgo hirugarren hiririk handiena da Thiès; hiri estrategikoa. "Senegal, edozein tokitara zoazela, nire hiritik pasa behar duzu" dio Sokhna. Senegalgo trenbide-korapilo nagusia da Thiès, bertatik abiatzen baitira Senegalgo hiri eta gune nagusietara doazen tren linea guztiak.

Sokhnaren senarra, El Haddi Diouf, lan bila etorri zen Lakuntzara. "Berak Lakuntzan lan egiten zuen, eta ni Djiby gure semearekin Thièsen bizi nintzen. 3 eta 4 urte bitarteko haurren irakas-

lea nintzen han, eta, horretaz gain, lagun batek eta biok jostuntza tailerra geneukan. Lagunak tailerrean jarraitzen du oraindik". Bi urte zituela Djiby semeak arnas arazo batzuk izan zituen. "Thiéseko medikuaren diagnostikoa izan zen asma zeukala. Senarrak oporretan Lakuntzara etortzea proposatu zidan, bertako medikuek Djiby arta zezaten. Hona etorri ginen, duela 13 urte inguru. Djiby ez zuen asmarik, bestelako arazo bat baizik, berehala sendatu zena. Oporren ondoren Senegalera bueltatzeko asmoa genuen, baina ez ginen itzuli; haurdun geratu nintzen, eta Lakuntzan geratzea erabaki genuen".

Gutxika, Lakuntzako bizimodura ohitu zen. "Senegal, wollof-a da gure hizkuntza, guztiok hitz egiten dugu. Horretaz gain, gehienek frantsesa hitz egiten dugu, eta tribu asko daudenez, bakoitzak bere aparteko hizkuntza hitz egiten du". Familia hazi zen. Djibyren atzetik, Aissatou, Badara eta Mame Diarra seme-alabak jaio ziren. "Pozik gaude. Haurrek euskara eta gaztelania ikasi dute eskolan, eta hemengoak dira".

Sokhna ia lau urte daramatza sukaldari laguntzaile Arbizuko kanpinean. "Lankide oso jatorrak ditut; gustura nago". Arbizuko azken Txistor Egunean, Zahra eta Patricia lankideekin batera

Sokhna egindako pintxoak izan zen irabazlea. "Izugarri poztu ginen". Ezin izan du irakasle lanean jarraitu, "hizkuntzarenatik. Hezkuntza Departamentura jo nuen hasieran, baina orduan ez nuen gaztelaniaz oso ongi hitz egiten eta euskaraz ez nekenez, ezinezkoa zen. Hizkuntzak ikasi behar nituen, baina haurdun nengoenez eta seme-alaba txikiak nituen, ez nuen ikasteko denborarik".

Gustura, eta lasai

Lakuntzan egiten du bere bizitza Sokhna. "Herri lasaia da, eta lasaitasuna gustuko dut. Ongi bizi gara". Txingurriye taldeko kidea da. "Txingurriye-

koa jende oso jatorra da, ekimen asko egiten ditu kanpotik etorri garenok herrian integra gaitzen. Txangoak antolatzen dituzte, baina ni orain ezin naiz joan, asteburutan Arbizuko kanpinean lanean aritzen naizelako". Lakuntzan bizi den Aysha senegaldarrarekin ere harreman handia du. Sokhnaren familia musulmana da, eta Aysharena kristaua, baina hori ez da inolako traba bi lagunendako. "Senegal, gehiengo, %90 inguru, musulmanak gara; eta gainontzekoak, kristauak. Aysha oso lagun ona da, jatorra, eta harreman estua dugu".

Lakuntzako pikotaren ondoko etxean bizi da, eta hain zuzen ere, pikota eta Lakuntzako plaza dira, berarendako, herriko txoko kutunenak. "Ni ez naiz etxetik asko ateratzeko, egia esan. Haurrak txikiagoak zirela parkera joaten nintzen, baina orain beraiek moldatzen dira. Batzuetan pikotan esertzen naiz hurrekin, edo herriko plazan, eta gustura egoten gara. Pikota txoko berezia iruditzen zait".

Abenduan Senegalera joango da familia bisitatzen. "Noizbait, ez dakit noiz, Senegalera itzuli nahiko nuke, eta bertan negozio bat zabaldu. Hori da nire ametsa. Baina seme-alabek ez dute nahi. Lakuntzarrak dira" dio.

Aliprox

948 576 246
Uriz, 12
LAKUNTZA

ARALAR
FERRETERIA • BURDINDOZIA

SARRAILAGINTZA
24 H

Ondo pasa festetan

Uriz, 18 - behea
LAKUNTZA
T. 948 46 48 06
administracion@aralarferreteria.com

KALE TXIKI TABERNA

Eguneko menua 14,5€
Asteburuko menua 42€
(Aurretik doitu)

Lakuntza 948 57 60 09

SORGINAK TABERNA

Bazkariak eta afariak
ematen ditugu

747 402 007 | 848 453 316
LAKUNTZA



SOULEYMAN
FOMBA

"Gorputza erlaxatzeko egiten ditut paseoak"

Malin jaiotako arbizuarrak Estazio bidean, zuhaitzen artean, egiten ditu paseoak

Erkuden Ruiz Barroso

Maliko Bana Faladie herrian jaio zen Souleyman Fomba, "orain probintzia aldatu da, eta Bougouni da". Bere familia osoa bertan dago. Duela "urte asko" iritsi zen espainiar estatura, "hogeit bat urte". Almeriatik sartu zen; eta, ondoren, Valentziara joan zen. Lanagatik Bartzelonan eta Zaragozan ere bizi izan da, "toki askotan, eta gero hona etorri nintzen". 2017. urtean iritsi zen Arbizura, lanagatik.

"Herri txikia da; hirian bizi nintzela eta lanik ez neukala, gauza eta ikastaro asko egiten nituen. Ikastaro bat zegoenean, nik egiten nuen, eta orain ere bai. Baina herri txiki batean gehiago kostatzen da horrelakoak egitea". Arbizun "pixka bat zailagoa" dela esan du, bestela, ateratzen diren ikastaro guztiak aprobetxatzen dituela. Gauzak ikastea eta jakitea gustatzen zaio, eta gaur egun gutxiago egiten badu ere, irakurtzea ere gustatzen zaiola esan du. "Lehen asko irakurtzen nuen, baina orain telefonoarekin...".

Natura

Souleymanek aitortu duenez, herrian ateratzeko garaian Lakuntza nahiago du. Baina Arbi-

zuko toki gogokoenak zein dituen galdetuta, Arbizu inguruan dau den ibilbideak aipatu ditu, bereziki, Estazio Bidea. Baso artean dagoen ibilbidea da, eta bertan paseatzera joaten da Souleyman: "Gorputza pixka bat erlaxatzeko. Etxean mugitu gabe nagoenean, pixka bat molestutzen dit, eta paseatzera ateratzen naiz. Natura ikustera atera behar naiz". Souleymani kirola egitea gustatzen zaio. Kiroldegira joaten ez denez, Arbizu inguruan egiten dituen ibilbideak erabiltzen ditu kirola egiteko.

Bertan paseatzea gustatzen zaio. "Noizbehinka" joaten dela

aitortu du, ez ditu egunero egiten paseoak, "lanetik ateratzen naizenean etortzen naiz. Denbora libre dudanean, ez. Lanaren ondoren, bueltatxo bat". Malin bizi zela ere "askotan" basora ateratzen zela esan du: "Hango eta hemengo basoak desberdinak dira. Hemen mendi asko dago, eta zuhaitzak desberdinak dira".

Beste paseo batzuk egiten ditu ere Souleymanek. "Lagun batekin autoan Lizarrara joaten gara. Mendia zeharkatzen dugu. Aralarko antenetara igotzen gara, San Migel santutegira". Paseoak ere ez ditu bakarrik

egiten, "paseatzeko laguna dut, auzokidea da eta berarekin konfiantza dut". Kointziditzen dutenean elkarrekin ateratzen direla esan du. "Ni ez naiz bakarrik herrikideekin ateratzen, edozein pertsonarekin ateratzea gustatzen zait. Batzuetan, kostatzen zaigu jendearekin hitz egiten hastea, baina behin erlazioa eginda, oso ongi dago". Jendearengan konfiatzen duela aitortu du Souleymanek, "nahiz eta guztiez ezin den fida". Arbizuko jendea "gustatzen" zaio, baina aitortu du harremanak egitea "pixka bat" kostatzen zaiola.

"Etxean mugitu gabe nagoenean pixka bat molestutzen nau; natura ikustera atera behar naiz"

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
Sakanako hiltegian hildako haragia

Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak
948 576 067 · 646 20 85 23
Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

GARRAIO AGENTZIA

TRANS ARREGUI

Juan Ramón Arregui
608 286 404

TRANSPORTES JUAN RAMÓN ARREGUI S.L.
Sarrate industrialdea, 1 | Larrañeta 7 | 31830 Lakuntza
Tel./Fax: 948 57 60 44/ Tel.: 948 57 63 16
info@transarregui.com

IRAÑETA

FESTAK

ABUZTUAK 24 Osteguna

18:00 Frontenis finala.
19:30 Urdaia jatea.
20:00-02:30 DJ Markelekin dantzaldia.

ABUZTUAK 25 Ostirala

12:00 Txupinazoa.
11:30 Paella txapelketa.
15:00 Herri ginkana.
20:30-22:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia eta txokoa.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-04:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 26 Larunbata

10:30 Baba txiki gosaria.
11:30 Mus eta partxis txapelketa.
17:00-19:00 Distopia Elektrotxaranga auzoz auzo.
20:30-22:00 Gabenara taldearekin dantzaldia eta txokoa.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-04:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 27 Igandea

12:00-14:00 Puzgarriak.
14:30 Herri bazkaria.
16:00-18:00 Puzgarriak.
18:30 Dantza emanaldia.
20:00-22:30 Joxpa erromeriarekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.

ABUZTUAK 29 Asteartea

12:30 Meza.
13:00 Luntxa.
15:00 Jubilatuen bazkaria.
16:30 Nesken pala partiduak.
20:00-21:00 Pantxo Valbuenaren kontzertua.
21:00 Txokoa.

UHARTE ARAKIL

ABUZTUAK 5 Larunbata ARALAR MENDI ELKARTEAREN BAZKIDEAREN EGUNA

12:00 Futbito txapelketa eta auzatea, Larrebieta frontoian.
14:30 Bazkaria, elkartearen.
Bazkalostean, bingo musikatua eta mus tximista.
19:00 Eztanda Txaranga.
21:30 Auzatea eta musika.

ABUZTUAK 13 Igandea SAN DONATO ERROMERIA

09:00 Beriainera igo, Unanuko eta Goñiko herritarrekin batera.
11:00 Meza.
Ondoren, udalak eskainitako auzatea.

ABUZTUAK 27 Igandea

55. ARTZAI EGUNA
Nafarroako interes turistikoko festa. Aralar Mendi kultur elkarteak antolatuta, Uharthe Arakilgo Udalaren, Nafarroako Turismo bulegoaren, Nafarroako Gobernuaren eta zenbait babesleren laguntzarekin.
10:00 Irekiera ekitaldia eta epaimahaiaren osaketa.
10:30-14:30 Nafarroako ardi latxen esne gordinarekin egindako XLII. gazta lehiaketa.
Gazta feria.
Artisautza feria.
10:30-13:30 Nafarroako ardi latxen erakusketa eta esne gordinaren XXXVIII. lehiaketa.
Latxa arrazako aziendaren estatuko XVIII. lehiaketa.
11:00-14:00 Artzain txakurren XXIX. erakusketa.
11:00-13:00 XXXIV. Ardi moztailen txapelketa.
11:30 Artaldea heritik pasatzea.
11:45 Ardiki dastaketa.
Gazta freskoaren dastaketa.
13:00 Omenaldia.

13:30 Lehiaketaren sari banaketa. Gazta irabazlearen enkantea.
14:30 Herri bazkaria.
17:00 Nafarroako artzain txakurren LV. txapelketa; Oñatiko Nazioarteko Txapelketan zein Euskal Herrikotan sailkatzeko baliagarria.

IRAILAK 7 Osteguna

19:00 Hitzaldia, udaletxean. Gamazada, Batasunaren indarra Xabier Irujo Ametzagaren gamazadaren eta gai horretako protagonisten, Felipe Gorriti uhartearra barne, inguruko hitzaldia, Euskal Festaren programaren barruan.

LAKUNTZA

ABUZTUAK 5 Larunbata

10:00 Futbito txapelketa, futbol zelaian.
Biltokiko futbito txapelketa.

ABUZTUAK 20 Igandea

LAKUNTZAKO PERTZA
06:00 Astoaren irteera, Lakuntzako Pertza elkartetik.
11:00 Meza nagusia, Aralarko Mikel Donea Santutegian.
12:00 Tripota banaketa. Biltoki elkartekoek eskainitako Lakuntzako Pertza dantzen emanaldia.
14:30 Bazkaria, Guardetxan.
17:00-19:00 Dantzaldia DJ Oixanirekin, Guardetxan.
20:00-01:00 Dantzaldia DJ Oixanirekin, plazan.
21:30 Zezensuzkoa.

ABUZTUAK 25 Larunbata

10:00 Futbito txapelketa, beheko larreñetan.
Biltoki futbol txapelektaren semifinalak eta finala.
20:00 Biltotek, Biltokian.

FESTAK

ABUZTUAK 26 Larunbata

12:00 Ezkil errepiketa.
12:30 Txupinazoa.
Lagun Arteako jubenilen eskutik.
13:00 2022an jaitako haurrei zapi banaketa eta kartel lehiaketako sari banaketa. Auzatea.
13:45 *Etxera!* festa hasiera, Haizean.
15:00 *Etxera!* herri bazkaria.
16:30 Apar festa, Larraina plazan.
19:30 Larrain dantza, Haizaldi gaitariekin.
20:00 Buruhandiak.
20:00-22:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.
20:00-23:00 Indarkeria matxisten prebentzioa eta sentsibilizaziorako gunea.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-04:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 27 Igandea

11:00 Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsaren 20. urteurrena: Lakuntzako eta Irurtzango erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira.
Stop AHT Zundaketak bizikleta martxaren geldialdia Lakuntzan.
12:30 Meza nagusia.
13:00 Herri kirolak erakustaldia, plazan.
Aizkorak gizonezkoak: Gorriti – Serrano / Beltza – Kortxero.
Aizkorak emakumezkoak: Maika Ariztegi / Santa Sousa.
Harri jasotzaileak: Lur Errekondo eta Lierni Osa.
13:00 Auzatea.
Lakuntzako Pertza Elkartearen eskutik.

18:00 Arbizu eta Tuterako pilota eskolen pilota partidak, Behar Zana pilotalekuan.

Mikel Goikoetxea – Hodei Loidi / Aratz Gartzandia – Laihotz Agirre Oihan Lopetegi – Iker Loidi / Haiz Lazkoz – Oier Mendinueta Alai Berastegi – Asier Zubiria / Kermen Zabala – Xabier Etxabarri

20:00 Auzatea.
Ehiztarien eskutik.
Buruhandiak.
20:30 Sala ta Garazi musika taldearen emanaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30-00:30 Gazte gunea: Bokata da autogestionatua, barredora eta musika, Beheko Larrañetan.
00:00 Soun System Lakuntza. Entzazu kolektiboa: Kale, DJ Lokesea, DJ Bolliko eta DJ Pankow.


ABUZTUAK 28 Astelehena HAURREN EGUNA

10:30 Dianak, Haizaldi gaitariekin.
11:00-14:00 Puzgarriak, plazan.
12:30 Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira, Haizaldi gaitariekin.
13:00 Auzatea.
Gure Nahiaren eskutik.
15:00 Elkartasun bazkaria, Biltokian.
17:00-19:00 Puzgarriak, plazan.
20:00 Auzatea.
Buruhandiak.
20:00-22:00 Joxpa erromeria taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-02:30 Joxpa erromeria taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 29 Asteartea

AITTUN-AMIÑEN EGUNA
11:30 Kaldereteak, Abarrategiko zuhaizpean.



 **12:00-14:00** Hotsein jolas gunea, Andra Mari ikastolak herriari, Behekon larreñetan.

12:00 Meza.

13:00 Auzatea, gurasoen eskutik.

Aittun-miñendako luntxa,

Pantxo Balbuenarekin, plazan.

15:00 Emakumeen herri bazkaria.

17:00 III. Lakuntzako Sari Nagusi, Kadeteen mailako txirringarritza proba.

18:00 Elektroxandakarekin kalejira.

19:00 Zinten jolasa, Aldabide plazan.

Oharra: kaskoa derrigorrezkoa da.

20:00 Auzatea.

Buruhandiak.

20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 30 asteazkena **EUSKARAREN EGUNA**

10:30 Dianak, Haizaldi gaitariekin.

12:00 Mintzapraktika.

Aiaupenarik antolatuta.

13:00 Lakuntza kantuz Kuxkuxturekin.

Auzatea: Larreñondoko babak. Haizearen eskutik.

14:30 Kantu bazkaria Kuxkuxturekin.

Aiaupenarik antolatuta.

18:00 Play Back Txapelketa.

19:00 Antton Telleria *Probatzen* bakarriketa ikuskizuna, Larraina plazan.

20:00 Auzatea.

Buruhandiak.

Elepunto DJ, plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

22:30-00:30 Gazte Gunea: bokatada autogestionatua, musika eta photocall, Beheko Larrañetan.

00:30-02:30 Elepunto DJ, plazan.

ABUZTUAK 31 Osteguna **GAZTE EGUNA**

12:30 Dantza emanaldia.

Ilunabarra dantza taldearekin.

13:00 Auzatea.

Biltokiren eskutik.

15:00 Gazte bazkaria.

Bingo eta piropoak.

17:30-19:30 Parkour eta akrobazia tailerra.

4 urtetik aurrera

18:00 Eztanda txarangarekin kalejira.

20:00 Buruhandiak eta auzatea.

23:00 Kontzertuak: Aurrez aurre, Bake faltsua, Ostikoka eta La Excavadora, plazan.



LA EXCAVADORA

ABUZTUAK 29 Asteartea

17:00 Kadeteen mailako

III. Lakuntzako lasterketa, Aralar Txirringarritza Taldeak antolatuta.

ARBIZU

ABUZTUAK 19 larunbata **SANDINDEI ERROMERIA**

IRAILAK 3 Igandea

09:30 Mendi lasterketa, eko kanpinetik.

Tritoiena mendi lasterketa:

21,19 kilometro. Nafarroako Mendi Lasterketa zirkurako eta Nafarmendirako baliagarri.

IRAILAK 8 Ostirala **19:00** Gure Zirkua.



*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.



VIKTORIA
KRUMOVA
DIMITROVA

"Aurkikuntza guztiz zoragarria izan da"

Bulgarian jaiotako unanuarra ikuspegi eta inguruarekin maitemindu zen

Alfredo Alvaro Igoa

Hiru mila kilometro pasara du sorlekua Viktoria Krumova Dimitrovak, Bulgarian. Aitaren Kustendil hiriaren eta amaren Barakovo herrien artean hazi zen. "Askotan pentsatzen dut, herriak, neurri batean, Unanuren antza duela. Askotan pentsatzen dut Barakovon nagoela, benetan! Unanuarrei aldiren batean esan izan diet". Bizitza erdia baino gehiago Nafarroan eman du Krumovak: 21 urterekin etorri zen, eta egun 44 ditu. "Horregatik, bertakotzat dut neure burua. Baina ez. Bulgariartzat ere jotzen dut neure burua, baina ez. Nongoa naizen galdetzen didatenean askotan erantzutea kostatzen zait, ez baitakit. Alde guztietakoa naiz; eta inongoa ez".

Krumovak Unanun bizitzen bi urte daramatza. "Kasualitate hutsa izan zen. Emaztearekin bate-

ra, orduko gure finantza ahalmen eskasetarako egokia zen etxe baten bila genbiltzan. Ez genuen Iruñetik urrun egon nahi, seme nagusiaren zaintza partekatua dudalako emazte ohiarekin". Egungo bikotekidearekin beste seme bat du. "Iragarkia ikusi genuen. Egia da eskualde hau ez genuela ezertarako ezagutzen. Lizarraldea asko gustatzen zitzagunez, hara jotzen genuen bilaketan". Etxea ikusteko GPSa jarri behar izan zuten. Baina tresnak Ergoiena adierazten zien, eta haiek Unanu bilatzen zuten. Etxejabeari hots egin behar izan zioten, gogoratu du barrez. "Etxea kanpotik ikusi genuen, ez da oso harrigarria. Baina kokapenak eta ikuspegiak maitemindu gintuen. Etxea barrutik ikusi gabe seinalea eman genuen". Bi urte horietan etxean ahal izan duten guztia konpondu dute, eta behar dutena ematen die.

Lanbidea

Krumova jostuna da. Hori da bere lanbidea. "Jostea, sormen proiektua garatzea maite dut. Iruñeko ia jostun guztiekin lan egin dut". Unanun noizbait espazioa egokitu bitartean, joste tailerra Iruñean du, horretan lanean eta enkarguak hartzen segitzen du. "Ez ditut enkargu guztiak hartzen, egun guztia lan egin ondoren ez baitut beti

"Etxea kanpotik ikusi genuen, ez da oso harrigarria. Baina kokapenak eta ikuspegiak maitemindu gintuen. Etxea barrutik ikusi gabe seinalea eman genuen"

gogoko Iruñera joatea, baina egiten dut".

Izan ere, gaur egun herriz herri ogia banatzen lan egiten du. "Zorte handia izan zen lana opatzea. Ez nuen uste etxetik gertu ezer opatuko nuenik. Jostun izatetik guztiz desberdina da, baina asko merezi dit". Gaineratu duenez, "horrek ingurua ezagutzeko aukera eman zidan eta maitemintzearen pareko zerbait sentitu nuen. Etengabe begiratzen: zein polita den hori, hura eta bestea, eta eguzki argitan, eta ilunpetan. Eta elurrarekin! Eta udazkena, eder-ederra. Eta erlainoa sartzen denean... Ipuinetakoa dirudi. Inguru zoragarria da". Horregatik harritzen da Krumova: "ez dakit nolaz ez dugun aurretik ezagutu. Iruñean 20 urte eman ditut, eta ez naiz preseski geldirik egon. Aurkikuntza guztiz zoragarria izan da".

Unanutik kanpo, Dorraorako bidearen bazterrean dagoen aulki batera eramane gaitu. "He-

rritik bere ingurua, natura, mendiak, ikuspegiak gustatzen zaizkit. Inguru honetan paseatzea atsegin dut. Horrek mugitzeko aukera ematen dit, premia dut eta on egiten dit. Inguruak horretara gonbidatzen du", aitortu du. Bidean doala loreak hartzea oso gogoko du, mahai gaineko loreontzian jartzen dituenak. "Ez dugu baloratzen, baina, hori miragarria da. Paseatzen dudana bakoitzean hartzen ditut loreak". Aulkian ere esertzen da. "Dagoen berde hau beste koloretakoa izan daiteke ere, baina beti zoragarria da. Niri arlo askotan laguntzen dit; ihes egiten, erlaxatzen... Batzuetan lagun batekin paseatzen dut, edo emaztearekin paseatzen dut. Baina gutxiago, txandakatu behar izaten gara, batek umekin egon behar baitu; 12 eta 3 urte dituzte". Zaharrenak Iruñean ikasten segitzen du, baina Unanun lagunak ditu, eta pozik dago. Elkarriketa bitartean futbolekin ari ziren.



UDAKO DENBORA-PASAK

Zenbat izozki daude errepikatuta?

POETIKA

Ez da komeni ez ① _____ ez argiegia izatea poema bat idazteko. Autoa hartzea hurrengo egunean bizitza berri bat hasteko ② _____.

Norbere buruaren beldurra izatea, edo, makurrago, beste norbait ③ _____ izatearena. Zerua zeharkatzen duten ④ _____ begira geratzea. Icebergen alde ezkutua begietan daramaten neskekin oheratzea.

Hitzen frankotiratzailea izan eta albo kalteak sortzea. ⑤ _____ ixtea mina barrenean utzita.

Maite izan ditugunak orain zein ⑥ _____ ari ote diren zapaltzen galdetzea. Sustrairik gabe errotzea.

Geuk jarritako ⑦ _____ harrapatuta sentitzea.

Ez idatzi poema bat ez baldin baduzu alde zurretik beste liburu batean ⑧ _____.

Castillo Suarez
Irautera (Elkar, 2019)

POLITIKOA

Ez dizut poema politikorik egin nahi, baina ni euskal ⑨ _____ naiz, eta hitzak asteburuetan eta udako oporretan datozkit: manifestaziorik ez dagonean, ⑩ _____ ez dudanean.

Castillo Suarez
Bala hutsak (Elkar, 2006)

POETIKA

Ebakiondo batek ebakia gogoraraztea beste helbururik ez du. Ez dira ez ederrak ez ⑪ _____.


Poemen antz handia dute, beraz. Gauza bera direla esan liteke.

Castillo Suarez
Alaska (Elkar, 2023)

- ① alperregia, onegia, ankerregia
- ② esperantzarekin, esperantzari, esperantzan
- ③ nahi, ahal, ezin
- ④ hegaztiei, hegazkinei, izarrei
- ⑤ Minak, Zainak, Zauriak
- ⑥ lur, ur, belar
- ⑦ tranpan, bizitzan, kaiolan
- ⑧ idatzi, entzun, irakurri
- ⑨ kantaria, idazlea, dantzaria
- ⑩ bilerarik, jairik, lanik
- ⑪ itsusiak, politak, baliagarriak





Dermioen letra zopa



T	T	R	J	C	H	P	V	S	Z	P	Z	R	D	O	L	M	B	R	F
B	I	D	R	A	Z	I	L	P	A	X	N	E	M	T	A	J	A	Q	D
N	O	K	K	P	Z	E	T	R	P	Z	V	H	A	M	R	P	C	I	U
P	H	W	K	G	N	O	R	K	A	I	Q	A	J	V	R	S	D	O	A
L	O	K	J	B	K	L	R	C	R	Y	S	T	J	Q	A	H	F	R	O
O	V	O	K	Z	Y	A	A	G	D	S	J	C	W	S	S	S	X	A	R
D	D	S	U	G	G	R	I	Z	E	C	P	J	I	G	K	W	T	S	N
N	H	T	K	O	E	A	G	Q	G	E	S	G	A	F	I	E	M	D	T
O	E	A	U	I	V	N	U	N	I	U	A	T	Y	I	Z	B	E	V	X
T	W	K	E	K	D	T	A	R	A	I	F	G	I	U	E	V	T	Y	I
Z	K	O	R	O	B	X	M	Q	Z	Q	L	L	R	G	B	P	A	X	K
I	V	S	R	G	T	O	H	T	V	N	E	I	I	Q	U	D	L	E	I
A	S	O	E	A	D	E	O	B	U	D	P	J	Z	M	R	J	I	U	L
J	P	I	K	I	N	T	B	G	T	X	E	V	L	R	U	O	T	L	A
I	K	H	A	N	L	A	J	Q	C	P	M	K	D	Z	J	F	U	P	N
P	C	A	A	A	I	T	X	A	R	A	G	O	R	R	I	C	R	E	T
Z	R	I	U	B	O	E	M	A	T	E	I	R	U	A	T	O	R	R	E
M	Z	E	K	A	N	O	T	O	B	R	A	H	C	M	T	G	I	X	G
W	K	K	A	T	X	I	T	A	L	E	N	B	M	M	I	B	W	P	I
K	U	O	R	X	R	A	T	E	Z	I	A	T	S	U	H	Z	A	U	O

- Aiztondo
- Atxitalen
- Epel
- Errotaurieta
- Goikogaina
- Harbotonak
- Iruzeta
- Kostakosoi
- Kukuerreka
- Larraskizeburu
- Lizardi
- Olarantxoeta
- Maugia
- Metaliturri
- Sasigaizto
- Saroi
- Txikilantegi
- Txaragorri
- Ustaizeta
- Zapardegia

SUDOKUAK



FRUTEN IZENAK



ehaakutaa

aiaabh

thasama

dgali

nnaaa

naaar

ikwai

jralaan


gaanard

lkomoieaot

arumriab

lnapaoot

GURUTZEGRAMA



Horizontalak


- 3. Gorka ... Tourrean parte hartu duen Ziordiko txirrindularia.
- 5. ... Ximenez, San Pedro baselizan koroatu zuten Nafarroako erregea.
- 8. Lorena ..., argazkiko klown antzezlea.
- 10. ... Martil, argazkiko Xotako kapitaina.
- 12. ... Garcia Mendioroz, argazkiko Arruazuko alkatea.
- 14. Tximista urdianen.
- 15. Etxarri Aranazko frontoia.
- 20. Sakanako Mankomunitatea.
- 22. Nerea Baldaren azken liburua.
- 24. ... Orella, argazkiko Andra Mari ikastolako zuzendaria.
- 25. Arbizon dagoen erreka.

Bertikalak


- 1. Pello Reparazen taldea.
- 2. Bakaikuko ihoteen pertsonaia nagusia.
- 4. Udalik osatu ez duen Sakanako herria.
- 6. ... Eguna, Uharte Arakilen abuztuaren bukaeran egiten den ospakizuna.
- 7. Arakilgo udalerrriaren barruan dagoen herri kopurua.
- 9. Etxarri Aranaztik Atunera joateko mendatea.
- 11. Sakanako irratia euskalduna.
- 13. Ganbara Sakanan.
- 16. Aztarnak aurkitu dituzten Olatzagutiko kobazuloa.
- 17. Uharte Arakilgo santutegia.
- 19. ... Arretxe, argazkiko idazlea.
- 21. Etxarri Aranaztik Arakilera hegoaldean dagoen mendilerroa.
- 23. Nahia ..., argazkiko txirrindularia.



Zenbat daude bakoitzetik?



Non daude Sakanako udaletxeak?





LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

1. Noizeskios __ Atalondoa
2. Baatzie __ Txantxangorri
3. Ustekaitzien __ Liztor
4. Kattalingorri __ Gustura
5. Otsein __ Potolo
6. Menddere __ Sagu
7. Arrokeiye __ Gero
8. Erlamin __ Baratzea
9. Liorra __ Joan
10. Txontxolongorri __ Harrokeria
11. Popolo __ Sudurra
12. Barrastadan __ Deitu
13. Ezkaatza __ Ustekabean
14. Xau __ Marigorringo
15. Fan __ Maindire
16. Aufetuik __ Bat-batean
17. Muxurketu __ Noiztik
18. Gio __ Lehorra
19. Suur __ Dardara
20. Dal-dal __ Lardaskatu

LABIRINTOA

Nola iritsiko da
belaontzia itsasargira?



Margotu erraldoiak!



**SAKANAKO
ERRALDOIAK**
Kolorretan itzazu
26 orrialdeko liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

ESKUALDEKO LIBURU-GENDA HAUETAN
SALGAI: ELUSTONDO ETXARRI ARNATZ KAXETA
IBURTZIN ALTSASU ARKATZ ETXARRI ARNATZ KAXETA
LIBURUNDA

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**
619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
Info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus



Erantzunak irailaren 4an www.guaixe.eus-en



CELESTE
GONCALVES
DA SILVA

"Andremaiaren ermitak maitemindu ninduen"

Caracas erraldoiaren aldean, Etxarri Aranazko lasaitasuna eta edertasuna baloratzen ditu Celeste Concalvesek. "Heidiren herrian bizi garela esaten diet senitartekoei"

Maidar Betelu Ganboa

Celeste Goncalves da Silva Oportotik gertu jaio zen, Espinhon, baina 11 urterekin familiarekin Caracasera (Venezuela) joan zen bizitzera. "Kolonian portugaldar sendoa dago bertan". 18 urte zituela, Carlos Coelho ezagutu zuen, 23 urteko gaztea. Bera ere Oporto ingurukoa zen, familiarekin Venezuelara joana. "Maitemindu ginen, ezkondu, eta han jaio ziren gure semea eta alaba. Senarrak tapiztegia zuen. Altzariak tapizatu, eta denetatik saltzen zuen: gortinak, alfonbrak eta dekorazioelementuak. Niketxean lan egiten nuen, joskintzan".

Urrian bost urte beteko dira bikotea Etxarri Aranatzera etorri zela, "Venezuelan dagoen egoerarengatik". Lehendabizi semearen emaztea etorri zen. "Seme-alabekin zegoela, pistoladunak gerturatu zitzaizkion autora, bera eraman nahian. Nork dahi zertarako. Zorionez, auto gehiago gerturatu ziren eta pistoladunek ihes egin zuten. Etxarri Aranatzen lehengusina bat zuen, eta hark etxea eskaini zion. Ez zuen bitan pentsatu eta hona etorri zen, seme-alabekin". Semeak toldoen fabrika zuen Venezuelan. "Negozioa itxi, eta Etxarrira etorri zen baita ere, duela sei urte inguru". Alabak ere Venezuela utzi zuen. "Bere senarrarekin eta euren familiarekin Madrilerajozan zen". Beraiek bakarrik geratu ziren Venezuelan. "Semeak Etxarri Aranazko jubilatuen tabernaren ardura hartu zuen. Venezuelako egorearen aurrean, etortzeko eta etortzeko. Azkenean, kasu egin genion".

Bi edadetu zaintzen hasi zen Celeste. "Emaztea nahiko mesfidatia zen; gaizki pasatu nuen". Bitartean, Iratxo taberna lekualdatzen zela jakin zuten. "Diru nahikotxo zen, baina guztion artean genuena bildu, eta semeak taberna hartu zuen. Jubilatuen juntaren baiezkoarekin, nire senarrak jubilatuen ardura hartu zuen, eta nik laguntzen diot".

Celestek kozinatzea "oso gustuko" du. "Venezuelan Portugalgo etxeko bazkideak ginen, eta askotan deitzen zidaten kozinatzeke. Beti esaten nuen jatetxe txiki eta polit bat izan gabe ez nuela hil nahi. Alabak esaten dit nire ametsa gauzatu dudala, jubilatuetan kozinatzen dudalako" dio Celestek, irribarrez.

Famatuak dira bere bakailaoa labean eta itsaski arroza. "Hasieran, jendeari kosta egiten zitzaion gauza ezberdinak probatzea. Horregatik, juntakideak behin afaltzera gonbidatu nituen. Bakailaoa labean prestatu nuen, portugaldar erara. Arrakasta handia izan zuen. Hurrengo batean, itsaski arroza egin nien. Ordutik, enkargu asko izaten ditut" poztzen da Celeste.

Etxarriarren harrerarekin "oso eskertuta" daude. "Sarritan esaten digute gu oso maitekorrek garela, zalameroak, eta, aldiz, hemengo jendea itxia dela. Ni ez nago ados. Guk ematen badugu, asko jasotzen dugulako da. Hemengo jendea bihotz oso onekoa da. Zerotik hasi ginen, eta primeran hartu gintuzten. Adibidez, gu hirugarren pisu baten bizi ginen, igogailurik gabe, eta eskaileratan gaizki ibiltzen nintzen. Jubilatuen gainean bizi zen ema-



kume batekin harreman handia genuen. Zendu zen, eta bere semeak amaren etxea alokairuan utzi zigun, amarekin genuen harreman onarengatik. Jende oso ona dago Etxarrin".

Lasaia eta polita

Caracas bezalako hiri erraldoi baten aldean, Etxarriren lasaitasuna izugarri baloratzen du. "Hemen norbaitek zerbait galtzen badu, gorde eta jabea topatzen dugu. Caracasen hori pentsaezina da". Herria oso polita iruditzen zaio. "Heidiren herrian bizi garela esaten diet senitartekoei". Paisaia, mendiak, kaleak... dena du gustuko. Baina Zugarreta kaleko Andremaie ermita da bere txoko kuttuna, "guztiz maitemindu nauena. Hasieran, ermitatik gertu bizi ginen, eta asko joaten nintzen bertara. Han eseri, eta nire gauzetan pentsatzen nuen. Vitorik, ermita garbitzen duenak, ermita goitik behera erakutsi zidan. Detalle polita izan zuen".

Etxarri Aranatzen "zoriontsu" dira. Festetan mugimendu handia izan dute, "baina halakoak aprobetxatu behar dira. Negozio honek bizitzeko ematen du, ez aurrezteko; baina aurrera egiten dugu eta hori da garrantzitsua".



Ongi pasa uda!!

948 562 604 · 603417554

info@orleghy.com · www.orleghy.com



HILDA
TAVERAS

"Bakaikuko karriketan galtzea dut gustuko, eraikinen harri eta zur landuak ikustea"

Hilda Taverasendako, Hiru Haitz da Bakaikuko txokorik politena; eta Goikoerreka karrikatik ikustea gustuko du

Maidar Betelu Ganboa

Hilda Taveras Dominikar Errepublikako Maria Trinidad Sanchez probintziako Nagua hirian jaio zen (117.500 biztanle), baina familia Santo Domingora joan zen bizitzera. "Beti egon naiz itsasoaz inguratuta".

2012an bere senarra dena, Jose Mari Zelaia bakaikuarra, ezagutu zuen. "Iruñera etorri nintzen bizitzera, arrazoi pertsonalengatik nire herrialdea utzi behar izan nuelako. Dominikar Errepublikatik distantzia hartu beharra nuen. Aurretik espainiar estatua ezagutzen nuen. Zaragozan eta Oviedon egona nintzen, eta bertako bizimodua, kultura, gastronomia... gustuko nituen. Kozinatzea eta jatea izugarri gustuko ditut! (kar, kar). Iruñean nengoela, urtebetetze festa batera gonbidatu ninduten, Urdiainen; eta han ezagutu nuen Jose Mari.

Gure artean harremana sortu zen, eta aurrerago Bakaiku ezagutzera gonbidatu ninduen".

Bakaikuk Hilda liluratu zuen. "Bakaikuko karriketan paseatu ginen, eta tabernara joan ginen zerbait hartzera. Txoko ederrak, harrizko eta zurezko antzinako etxe ikusgarriak... Zeinen polita! Herriko lasaitasuna gustatu zitzaidan, eta jendearen harrera. Hasieratik oso ongi hartu ninduten Bakaikun. Gure harremanak jarraitu zuen, ezkondu ginen, eta ordutik hemen bizi naiz. Maitasunagatik geratu nintzen Bakaikun. Oso pozik nago; bakaikuar guztiekin oso gustura sentitzen naiz".

Hilda Taveras etxeko langilea da. "Ama eta mendekotasuna duen ahizpa Ameriketara bizi dira, eta haiei laguntzeko lan egin behar dut, ezinbestez. Nire laguntza behar dute". Seme-ala-



bek herritartasun bikoitza dute, baina Dominikar Errepublikan bizi dira, bertan egiten dute lan. "Han diru gutxiago irabazten da; hemen aukera gehiago dago".

Bakaikun egin zuen lan aurretik, baina gaur egun Izurdiagan ari da, istripu baten ondorioz erabateko mendekotasunean 38 urte daramatzen gizon tetraplegiko bati laguntzen. "Badakizu zergatik onartu nuen lana? Hemeretzi pertsona pasatu ziren nire aurretik, eta ez zuten onartu, zituen baldintzengatik. Egoera ikustean, senarrari esan nion lana onartuko nuela gizon horrek behar ninduelako. Harreman bikaina dugu, konfiantza handikoa. Okerrera da indar handia egin behar duda-

la bera mugitzeko. Bizkarrezurretik operatuta nago; baina, nahiz eta ongi egon, adina aurrera doa, eta ez dakit gorputzak zenbateraino utziko didan".

Hiru Haitz, politena

Bakaikuko txokorik politena Hiru Haitz da Taverarendako. "Hiru haitzen formarengatik, harri horiek zizelkatuta dauden modurengatik. Ikusgarria da. Bakaikuko euskaltegitik gora, Angoiko iturria albo batean utzi, eta Goikoerreka kaleko txoko batetik Hiru Haitzak ikustea gustatzen zait. Txokoa txukun-txukun dute bizilagunek. Egia esan, Bakaiku oso ongi zainduta dago. Antzinako etxeak eta kaleak di-

tut gustuko, herriko karriketan galtzea, etxeetako harrien zizelkatzeak eta landutako zurak ikustea, nire herrialdean ez baitago halakorik, eta Bakaikun egiten ari diren etxeak edo zaharberritze obrak ikustea. Eliza ere ederra da" dio Taverasek.

Oso gustura bizi da Bakaikun. "Dominikar Errepublikara urtero joaten naiz familia bisitatzera, baina ez nintzateke bertara bizitzera itzuliko. Hemengo lasaitasunak eta segurtasunak ez du preziorik". Hemengo klimara ohitu da. "Nahiago dut hotza beroa baino. Bero handia pasatu izan dut nik. Gainera, beroarekin hanka hazi egiten zait. Pozik nago Bakaikun, eta jendea oso jatorra da".



DORRAO

FESTAK

ABUZTUAK 12 Larunbata

10:30 Pilota partidak.
12:00 Txupinazoa.
13:00 Auzate Fanfarrapoterekin.
20:00 Txingones de la Rencleren kontzertua.
21:00 Auzatea.
00:00-05:00 DJ Onfiesta, plazan.

ABUZTUAK 13 Igandea

12:00 Pala partiduak.
18:00 Haurrentzako jolasak.
20:00 Txokolatada.
20:00-22:00 DJ Onfiesta, plazan.
21:00 Auzatea.
00:00-05:00 DJ Onfiesta, plazan.

ABUZTUAK 14 Astelehena

13:00 Haizeberri Dultzaineroak.
14:30 Herri bazkaria.
18:00 Erronda.
21:00 Auzatea.
00:00-05:00 DJ Aitor, plazan.

ABUZTUAK 15 asteartea

13:30 Meza nagusia.

14:15 Auzatea Fanfarrapoterekin.
17:30 Aizkolariak.
20:00 Txistorrada eta sardinada.
20:00-22:00/00:00-05:00 DJ Aitor, plazan.

UNANU

FESTAK

**ABUZTUAK 13 Igandea
SAN DONATO ERROMERIA**

09:00 Beriainera igo, Uharte Arakilgo eta Goñiko herritarrekin batera.
11:00 Meza.
Ondoren, Uharte Arakilgo Udalak eskainitako auzatea.

LIZARRAGA

ABUZTUAK 19 Larunbata

10:00 Gosaria, Arrangarten.
11:00 Arlezera marxa.
14:30 Herri bazkaria.
17:00 Erronda herrian, Txaranga Txorongorekin.
21:00 Afaria, Azi-Iturri-Txokoa elkartearen.
21:30 Modestorekin dantzaldia.

ETXARRI ARANATZ

FESTAK

**ABUZTUAK 4 Ostirala
INUTILLAN EGUNA
EGAK ANTOLATUTA**

11:30 Sardinada, plazan.
12:00 Burrunbada.
12:30 Karaokea.
14:30 Bazkaria, plazan.
16:55 Pregona.
17:00 Desfilea.
19:00 Kapea.
22:00 Zezensuzkoa.
23:00 Kontzertuak: Akerbeltza, plazan.
Fresa Morango DJ, gaztetxean.

ABUZTUAK 15 Asteartea

AMA BIRJINA EGUNA
09:00 Udalbatza udaletxetik ermitara.
Iristean, merenduak hasiko dira.
Ondoren, kintoek Dantzakia eginen dute, ermitaren atariaren parean. Amaitzean, kalejira plazara.
21:00-02:00 DJ Nexusekin dantzaldia.

ITURMENDI

FESTAK

**ABUZTUAK 15 Asteartea
AITZAGA EGUNA**

URDIAIN

ABUZTUAK 23 Asteazkena

12:00 Ipuin kontaketa eta tailerra, liburutegian.
Hitzaztanak (ahoz gozaten duten hitz laztanak) ipuin kontaketa eta tailerra, Bakea eta bizikidetzeta lantzen duten liburutegiak programaren barruan.

**ABUZTUAK 12TIK 15ERA
AITZIBER FESTAK**

ABUZTUAK 12 larunbata

**URDINGO GAZTE EGUNA
UGAK ANTOLATUTA**
12:00 Exajua, plazan.
13:00 Mozorro erakusketa eta argazkia.
13:30 Trikipoteo.
15:00 Mozorro bazkaria, plazan.
18:00 Eztanda Txaranga.
22:00 Bokata eta pin erakusketa, gaztetxean.
23:30 Kontzertuak: Zinez eta Añube taldeak, plazan.

03:00 Kontzertu-pintxada: Ganibet, gaztetxean.

ABUZTUAK 13 Igandea

16:00 Haur eta gazteendako bideojokoak euskaraz, auzoan.

ABUZTUAK 14 Astelehena

12:00 Etxajua.
16:00 Mus eta Briska txapelketak, Aitziber elkartearen eta Kaluxan.
17:30 Sakanako emakumieen arteko pala partidak, frontoian.
19:00 Urdaingo futbol zazpi txapelketako finala.
UGAk antolatuta.
20:00-22:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia, plazan.
00:00-03:00 DJ KI-rekin dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 15 Asteartea

12:00 Meza eta auzatea, Aitzibergo basilizan.
14:00 Bazkariak, urritzitiko zelaietan.
20:00-22:00/00:00-03:00 Gabenara taldea, plazan.

*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

XXX

**UMOREZKO
ANTZERKI
JAIALDIA
ARAIA
ASPARRENA**

**11-15 EGA
ABUZTUAREN**
WWW.JAIALDIA.COM

araba álava

radio vitoria

Diario

Vital FUNDACIÓN FUNDAZIOA



ANALÍA
CORIA
ESNAOLA

"Leihoetatik ikusten dena bizirik dagoen koadroa da"

Herria inguratzen duten berdea, mendia eta basoa maite ditu



Maidar Betelu Ganboa

Iturmendiarra Argentinako Ciudadela hirian jaio zen. Buenos Aires probintzian dago, hiriburu federalaren ondoan. "Oso hiri handia da. Denetarik duzu, hiria baita, Iruñea bezala. Hemen hiria eta industrialdeak banatuta daude; han dena elkarrekin dago: lantegiak eta etxeak. Sortetxearen ondoan tailer bat zegoen", azaldu du Coriak.

Sorlekuak ez du batere zerikusirik Iturmendirekin. "A zer alde! Hasieran ez nintzen herrira ohi-tzen. Astebururo Iruñera joaten nintzen. Dendetara-eta joateko 'behar' moduko bat nuen. Etxetik atera eta ez erostea estutasuna zen; orain, ez". Argentinara 2018an joan zen azkenekoz. "Orduan jabetu nintzen, ez. Ez dakit bueltatuko nintzatekeen. Behintzat Ciudadelara, ez".

Coriak azaldu duenez, Alberto Goikoetxearen senideak dira. "Bere aitona eta nirea anaiak ziren. Albertoren ama, Pili izeba, Argentinara joaten zen. Gure gurasoak hiltzean, gure ahizpa

Ceci anaia txikiarekin, 20 bat urte izanzen zituen orduan, hona etorri zen". Ordurako, bera ez-konduta zegoen, eta bi ume zituen. "Ez nuen sekula pentsatu Argentinatik ateratzea. 'Ezin da herrialdea utzi. Hemen gelditu beharra dago, eta aurrera atera', esaten nuen. Baina bizitzea tokatu zitzaigun egoeragatik, Albertok lana eskaini, eta etorri egin ginen". Bere adineko jendeak ere ume txikiak zituen, eta etorreragatik "erota zegoela" esan zioten, "zegoena 'normala' zen. Hor deskonexio pixka bat dago". Garilaren 25ean 15 urte bete zituen Iturmendin. Udan etorri ziren, semeak orduan 8 urte zituelako, "eta eskola sartzeko euskararekin pixka bat egunean jartzeko". Ume txikiak bi urte eta erdi zituen.

Argentinako azken bisita "oharrazpena" izan zen: "hemengoa naiz, baina dagoeneko ez naiz, ez nago. Lagunak ikusi eta, hemengoa ere ez. Gogorra izan zen". Nahiz eta harremanak sare

sozialen bidez egiten dituen. Aitortu du Iturmendin "ongi" dagoela. "Herri txikia izateaz aparte, lasaitasuna izugarria da. Umeak kozkortu dira, helduak dira, atera egiten dira. Jakitea atera direla, baina ez zaiela ezer gertatuko... Hori lasaitasuna! Ufa! Horrek ez du konparaziorik! Ez gara konturatzen!" Argentinatik kontaktzen diote ezin direla atera. "Umea siestan utzi eta, ni orain bezala, plazara etortzea... Ez dago inor, hartu dezakete, zaitzakete... Egoera bortitza zen lehen, eta orain nahikoa bortitza da ere".

Berdea Iturmendin "guztia polita" dela esan du Coriak. Herria "oso lasaia" da. "Baina berdeak, mendiak eta basoak ez dute preziorik. Gaur egun, nire adinarekin, berdearen lasaitasuna bilatzen dut. Izugarria da". Haren bila "edozein aldetarantz" jotzen duela azaldu du, "baina, altuerarik ez. Igo? Autoarekin. Gehiago beheraka jotzen dut, basorantz. Liluratzen nau!" Azaldu duenez, pisutik Santa Mari-

"Leihoetatik ikusten dena bizirik dagoen koadroa da. Ikusten diren iluntzeak edertasuna dira. Niretako, asko balio du"

na eta barga ikusten ditu. "Leihoetatik ikusten dena bizirik dagoen koadroa da. Ikusten diren iluntzeak edertasuna dira. Niretako, asko balio du". Coriak gaineratu duenez, "txoritxoak entzutea, berdea ikustea... Ordainezina da. Hemen dugun airea! Batzuetan ez gara jabetzen dugunaz".

Azaldu duenez, basora edo paseatzera joaten denean, "deskonektatzeko, bere buruarekin egoteko, bat egiteko" egiten du. Horregatik ez du aurikularrik eramaten. "Haurrak handitu dira. Gaur egun, festetan eta halakoetan baino gehiago, horretan nago". Pilare ermitaren ondoan esertzea gogoko du Coriak. "Jakina, matea ezin da falta. Horren ohitura oraindik badut. Lanera ere eramaten dut. Argentinarendako matea droga baten modukoa da (barrez)". Esan duenez, "gero eta gehiago jotzen dut basora. Basoan etxea erosiko banu (barrez). Jabetu nondik natorren: Ciudadelatik, Buenos Airestik".



ANDREA
PIVOT
ORFANO

"Txoko berezia da Kaluxa: erakartzen nau"

Maiatzetik da Urdiaingo bizilaguna Andrea Pivot Orfano. Berarendako, bailarako herririk politenetakoa da Urdiain, eta gustura dago bertan

Maidar Betelu Ganboa

Aosta bailarako (Italia) Aosta herriari jaio zen Andrea Pivot Orfano "Italiako bailararik txikiena da, eta Italia iparraldean dago, Alpeetan, Suitzarekin eta Frantziarekin mugan. Bailarak 120.000 biztanle ditu; eta Aostak, herri handienak, 40.000. Inguruan 4.000 eta 3.000 metroko mendi ezagunak ditu: Cervino, Mont Blanc, Gran Paradiso... Italiak Frantziarekin partekatzen du Mont Blanc; eta Suitzarekin, Cervino. Gran Paradiso da osoki Italian kokatuta dagoen mendirik altuena (4061 m)". Aostari Sakanaren antza hartzen dio, "Irurtzundik sartzen zarenean, bereziki".

2005ean, 28 urte zituela, Almeriako Cabo de Gatara joan zen bizitzera. "Aurretik oporretan egon nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Autokarabana erosi nuen, eta txakurrarekin Cabo de Gatara joan nintzen. Ia bi urte egin nituen autokarabanan bizitzeko". Udan ontziak garbitzen ibili zen jatetxe batean, eta artisautza saltzen zuen. "Aostako bailaran tipikoak diren egurrezko artisauroak tailatzen ditut. Eta, horretaz gain, eskumuturrekoak, orkatilako pultserak... sal-

tzen nituen. Bizitza aurrera ateratzen nuen". Cabo de Gatan oso argi dago zein den denboraldi sasoi indartsuena, "Aste Santutik maiatzeko zubira, eta ekainaren 20tik irailaren 20ra. 100 egun dira. Ezagunei esaten nien zortea nuela, urtean 100 egunez lan egiten nuelako eta gainontzeko egunak niretako zirelako".

Guztira 11 urte bizi izan zen Cabo de Gatan. 2016an Altsasura etorri zen bitzera, "maitasunagatik, Almerian ezagutu nuelako egun nire bikotekide ohia dena. Hasieran, Almeriatik honajoa-etorrian ibiltzen nintzen; baina, azkenean, Altsasura etorri nintzen". Altsasun ezaguna da Andrea, gaztaina saltzaile egon baitzen hiruzpalau urtez. "Bainapandemia iritsi zen, eta bukatu zen. Pandemia ondotik, jendea arratsaldeko zortzietarako etxeratzen zen, eta ez zegoen horrenbesteko lanik. Autonomoen kuota, lurzoru okupazioarena, aseguruak, gaztainak, ikatza... gastu asko ziren, eta kontuak ez ziren ateratzen. Joan zen urtean utzi behar izan nuen". Aldi berean, bere harremanak bukatu izan zuen. "Maitasuna bukatu zen; bizitzaren beste fase batean nago orain".

Bestelako lanetan hasi zen Andrea, "ordura arte sekula egin ez nituenak. Durrumako Cepsan hasi nintzen, gasolio saltzaile. Kontratua bukatuta, martxoan Ziordiko gasolindegian baja bat bete nuen. Maiatzaren 3an Urdiaingera bizitzera etorri nintzen, eta hurrengo egunean bukatu zitzaidan kontratua. Ondoren, Urdiaingo oilategian hasi nintzen; baina ez zen niretako moduko lana, eta utzi nuen. Durrumako Andamur gasolindegitik hots egin zidaten, eta ekainaren 23tik bertan nago lanean, gustura. Irailaren 30era arte dut kontratua; gero, ikusiko dugu" dio Andrea Pivotek.

Etxe berezia

Pivot bospasei hilabete egon zen Altsasun alokairuzko etxebizitzarik ezin topatu. "AEKn euskara ikasten ari nintzen, eta bertan aipatu zidaten Urdiainen pisu bat libre geratu zela plaza ondoko etxe batean. "Oso gustura" dago Urdiainen. "Sakanatik gehien gustatzen zaidan herrietako bat da. Zorte handia izan dut etxebizitza hemen bilatu dudalako". Herri txikiak gustuko ditu. "Cabo de Gatan El Pozo de los Frailesen bizi nintzen, 400 biztanleko herri batean, eta

Aostan basoan zegoen etxe batean. Lasai bizi naiz Urdiainen".

Urdiaingo igerilekuetatik gora doan bidea, Bernoako galtzada, eta Intxusburu "izugarri" gustatzen zaizkio. Baita Urdiaingo portutik Santa Marinara doan ibilbidea ere. "Onddoak eta zizak hartzera joatea gustuko dut. Aostan aitarekin joaten nintzeneko oroitzen nintzen zizak burura". Denborarekin, baratzea eduki nahiko luke. Urdiaingo etxeak "oso politak" dira. "Aostakoak etortzen zaizkit burura, baina hango etxeek azpialdean zura izaten dute, goialdean harria, eta teilatuak arbelezkoak dira. Gainontzekoan, nahiko antzekoak dira". Agian, horregatik Kaluxa du horren gustuko. "Etxea nola erreformatu zuten asko gustatzen zait. Kanpotik eta barrutik. Taberna oso polita da,

"Onddoak eta zizak hartzera joatea gustuko dut. Aostan aitarekin joaten nintzeneko oroitzen nintzen zizak burura"

beroa, abegikorra. Urdiainen etxe polit asko daude, eta baina Kaluxak atenzioa ematen dit".

Gustura dago bere bizimodurarekin, baina nork daki zer etorriko den. "Bizitzak buelta asko ematen ditu". Ama duela hiru urte zendu zen, eta aita eta anaia ditu Aostan. "Etorkizunean bertara bueltatzen ikusten dut neure burua; baina momentuz, ez. Izan ere, hura oso frenetikoak da. Turismo eta mugimendu gehiegi, jendea beti korrika batean, estresa... Masifikatuagoa da. Hau, aldiz, lasaiagoa da".



UDAKO

argazki

LEHIAKETA



WWW.GUAIXE.EUS



'TALO'
DEL VALLE
LANDALUZE

"Foru plaza herriko bihotza da"

Madrilgo "estresa" alboratu du, eta herriko lasaitasuna hartu du. Gehienbat, plazako giroa du gustuko

Erkuden Ruiz Barroso

Madril hiriburuan "jaio eta hezi" zen Talo del Valle Landaluze. "Zentroan; ataskoak eta zarata". Energia eta estres "handia" duen hiria da Madril, "eta hori gustatzen bazaizu, ongi, baina lasaitasuna gustatzen bazaizu ez da zure tokia: jende guztia leku guztietara korrika eta presakada eta zenbaki hutsa zara, oso inpersonala da".

Talori toki lasaigoak eta natura gustatzen zaizkio, eta duela lau urte iritsi zen Altsasura. "Ia 24 urterekin eski irakaslea nintzenez, ez nintzen Madril asko bizi; eta Altsasuko Sakana LH instituturaz eskalada teknikari gradua ikastera etorri nintzen". Tokia gustatu zitzaion, eta gelditu zen. "Hemen bukatu nuen. Zortea izan nuen, eta pisu batean logela bat aurkitu nuen, alokairuan, hemengo bi lagunekin; oso

lagun onak dira, kuadrillakoak, eta gero neska-laguna ezagutu nuen". Geroago, Altsasun bertan lanean hasi zen.

"Momentuz, gustura nago; eta ez naiz Madrilera itzuliko; familia bisitatzera, agian". "Gutxi gorabehera" hemen egin du bitzita; autonomo bihurtu da; eta ekiteko dirulaguntza eskatu du; "beraz, behintzat urtetxo batzuk hemen bizitzeko egon behar naiz. Etorkizunean, ez dakit; baina oso gustura nago".

Erdigunea

Talori gehien gustatzen zaion Altsasuko tokia, edo behintzat askotan bisitatzen duena Foru plaza eta bere inguruak dira. "Niretako, herriko bihotza da. Tabernak daude, giroa dago, haurrak parkean egoten dira... Alde zaharreko erdigunea da. Inauteriak hemen bukatzen

dira; Santa Agedatan hemen dantzatzen da zortzikoa, festak...". Herriko toki adierazgarria iruditzen zaio.

Plazan lagunekin egoten da, "hori lehenengoa", eta, bigarrenik, ahal duen ekimen guztietan parte hartzen duela esan du Talok: "Herrian antolatzen diren gauzatan, asko Foru plazan egiten direla, parte hartzen edo antolatzen saiatzen naiz: elkarretaratzeetan, festetan, txosnetan laguntzen eta abarretan". Barruraino sartu da herriaren dinamikan. "Uzten badidate, bai. Oso urduria naiz eta gauzak egitea gustatzen

zait. Hortaz, gero eta gehiago parte hartu, orduan eta hobeto".

"Etxean edo plazan ez banago, mendian nago". Eskalada denez Taloren ogibidea, denbora tarteak pasatzen ditu Pirinioetan eta Alpeetan. Bestela, Altsasu inguruko mendietan ibiltzen da askotan: "Korrika egitera joaten naiz: Bargagaingo Gurutzera, Intsusburura, Sarabera, Aralarra, Urriztira... Egia esan, Sakanak natura baliabide asko ditu; bere xarmaren parte garrantzitsua dira". Sakanak mendi eta natura asko dituela azaldu du Talok, "edozein mendizalarendako, gozagarri".

"Alde Zaharreko erdigunea da; Inauteriak hemen bukatzen dira, zortzikoa dantzatzen da..."

"Herrian antolatzen diren gauzatan parte hartzen saiatzen naiz"

Txalaparta
TABERNA
Udako giroa ezagutu!
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Udan gozatu gure artisau ogiekin eta gosariekin
PORTUKO
ALTSASU
Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



AHLAM
SABEL

"Olatzagutiatik dena gustatzen zait"

Herriko txoko bat aukeratzekotan, Jubilatuen Elkartearen ondoan dagoen parkea aipatu du Marokon jaiotako olaztiarrak

Erkuden Ruiz Barroso

"Urte asko" daramatza Olatzagutian bizitzen Ahmal Sabelk. 2010ean iritsi zen, Etxarri Aranatzen bi urtez bizi ondoren. Hortaz, 2008. urtean iritsi zen Etxarri Aranatzera Ahmal, orain bere senarra denarekin: "Etxarri Aranazko udaletxean ezkondu ginen". Ondoren, senarrak Agurainen lan egiten zuenez, Olatzagutira bizitzera joan ziren, "gertuago zegoelako".

Ahmal Marokoko El Kelaa des Sraghna Marrakex ondoan dagoen herrian jaio zen; 80 bat kilometrotara dago. "Ez da ez handia ez txikia, normala da". Altsasurekin alderatuta, Sakanako herririk handiena, "askoz handiagoa" dela esan du; ia 100.000 biztanle ditu Ahlamen jaiotze hiriak. Izen bereko probintziako hiriburua da, Marrakex-Safi eskualdean, eta nekazal zonalde garrantzitsu bat da.

Parkea

"Olazitik gehien gustatzen zaidan tokia? Dena; Olatzagutiatik dena gustatzen zait. Urte asko

daramatzat hemen, eta herri osoa dut gustoko". Herri lasaia delako gustatzen zaiola esan du Ahlamek. "Nire senarrari ere asko gustatzen zaio. Haurrak hemen jaio dira, zer esanik ez". Alokatzeko pisu bat bilatzen ari dira, eta gehienak Altsasun aurkitu dituzte: "Baina nik ez dut Altsasura joan nahi, hemen gelditu nahi dut, Olatzagutian". Herritarrekin duen harremana ere goraiatu du, "gurekin hitz egiten dute, kaletik gelditzen gaituzte...". Hala ere, toki guztietan bezala, "denetarik" dagoela gaineratu du. "Baina orokorrean olaztiarrak oso jatorrak dira".

Herriko toki gogoko bat edo gehien bisitatzen duena aukeratu behar badu, Ahlamek etxe ondoan duen parkea aipatu du. Jubilatuen Elkartearen ondoan dagoen haurrentako eta jubilatuen parkeak dira, eta erdian iturri bat dago. Lau haur ditu, eta bertan asko disfrutatzen dute: "Haurrekin gehienetan parkera joaten naiz; bertan arazorik gabe eta askatasunean jolasten dira, oso gustura ibiltzen dira".

"Nik ez dut Altsasura joan nahi, hemen gelditu nahi dut"

"Parkean haurrak arazorik gabe eta askatasunean jolasten dira"



Energia aurreztu zure etxea isolatuz
Obrarik gabe
Hormen arteko intsuflazio sistemak

FINANTZATZEKO AUKERA

ISOLAGOIEN

660 091 456 - 647 913 740
ALTSASU - NAFARROA



ROSA EMERITA
JIMENEZ
JIMENEZ

"Hona etortzen zara, eta aire zabalean zaude"

Txopera da Ekuadorren jaiotako ziordiarren tokirik gogokoena



Erkuden Ruiz Barroso

Rosa Emerita Jimenez Jimenez Ekuador hegoaldeko Amaluza herrian edo - bertan deitzen den bezala - parrokiara jaio zen. Epindola eskualdean dago Amaluza, Loja probintzian; eta Rosak azaldu duenez, bere jaioterriak 7.000 biztanle inguru ditu, "herri handi xamarra da". Ez zen herrigunean bizi, baizik eta hamar bat minututara. Amaluza mendi inguru batean dago, eta bi ibaiek zeharkatzen dute herria, "menditik jaisten direnak". Zerbitzuen aldetik, "oinarrikoak" daudela esan du Rosak: "Lojara, hiriburura, eta hirietara joateko garraioa badago". Loja probintziako hiriburua da, "hemen Iruñea bezala".

Anaiaren urratsak jarraituta iritsi zen Ziordira Rosa, duela

"asko". "Duela 22 urte iritsi nintzen. Hasieran, anaia etorri zen, eta ni beragatik etorri nintzen". Lehengusu bat etorri zen lehendabizi: "Anaia lehengusua etorri zelako etorri zen. Hemen urtebetez lanean egon zen, eta gero ni etorri nintzen. Irtsi nintzenetik bizi izan naiz Ziordian; ez naiz mugitu". Ziordira iritsi zenean, "ez nekien zehazki nora etorri nintzen. Anaiak zerbait kontatu zidalako; bestela, ez nekien nora etorri nintzen". Patuaren "gauzak-edo" izango zirela uste du: "Gustatu zitzaidan; ongi nago".

Hasieran, adaptazioa "zaila" izan zela aitortu du Rosak, "azken finean, beste herrialde bat da, beste ohitura batzuk, familia urruti izatea...". Hasieran gehien

faltan nabaritzen zuena familia zela esan du; eta ahal duenean Ekuadorrera joaten dela aipatu du, "duela urtebete inguru joan nintzen, eta hiru hilabete egon nintzen".

Ibiltzera

Rosari paseatzera joatea gustatzen zaio, eta ibiltzera joateko toki gogokoenetakoa Txopera da: "Hemendik hona, gora eta behe- ra, ibiltzen naiz". Mendian ere ibiltzen da, Olaztiraino joaten da, eta harrobiaren bide "horietatik" ere ibiltzen da.


"Ur jauzia dago, saskibaloira jokatzeko pista, haurrendako parkea, bazkariak eta afariak egiteko gunea...". Rosak esan du aisialdia pasatzeko toki egokia dela Txopera: "Lasaia da, hona

etortzen zara, eta aire zabalean zaude". Duela zenbait urte bizikleta hartuta joaten zen, baina orain paseatzera Ziordiko parkera joaten da "Ibaiari begira egoten naiz, ahateak dauden edo ez, ea uretako animaliak aurkitzen ditudan...". Urtaroaren arabera ibaia "asko" aldatzen dela aipatu du Rosak, baita urte batetik bestera ere. "Aurreko udan ez zegoen urik; aurtun, behintzat, ura dario". Uholdeak ere izaten dira parkean.

Txopera bisitatzea gustatzen zaionez, toki berean ikuspegi eta paisaia desberdinak ikusteko aukera du Rosak: "Elurtuta dagoenean, esaterako, oso desberdina da. Toki honetako argazki asko ditut; denak, desberdinak".

"Ur jauzia dago, saskibaloira jokatzeko pista, haurrendako parkea, bazkariak eta afariak egiteko gunea..."

"Toki honen argazki asko ditut; urtaroaren arabera desberdina da"



Herri txikien
xarma,
Ziordia

ALTSASU

ABUZTUAK 18 Ostirala

22:30 Bakarrizketa emanaldia, Haritza tabernan. Nixioren Stand-up comedy saioa.

ABUZTUAK 22 Asteartea

20:00 Kontzertua, gaztetxean. The Real McKencies taldearen kontzertua.

ABUZTUAK 26 Larunbata

21:00 Festa, Haritza tabernan. Salsa, batxata eta karibeko erritmoak dantzatzeko festa.

ABUZTUAK 31 Osteguna - IRAILAK 3 Igandea

19:00 Garagardo azoka, Baratzekobiden. Kukurreka elkarteak antolatuta, udalaren laguntzarekin.

IRAILAK 1 Ostirala

EZIN ZAILAGOA 22. NAFARROAKO ZIRKO JAIALDIA

18:30 Jacuzzi, Baratzekobiden.

19:00 Back2classic, Iortia zabalgunean.

19:45 Kasumay, Iortia zabalgunean.

IRAILAK 4 Astelehena

12:00 Elkarretaratzea, Zumalakarregi plazan.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

IRAILAK 8 ostirala

20:00 Kontzertua, Iortia zabalgunean.

Miguel Talavera & The Sutters of Suny Beach taldearen kontzertua, Kultur 2023 programaren barruan.

OLATZAGUTIA

ABUZTUAK 26 Larunbata

09:00 Bizikleta martxa, plazatik.

Stop AHT Zundaketak! Lurraren alde Sakana, Goierri eta Lautada bizirik! Bizikleta martxa. Bigarren etapa: Olazti Ataun.

ZIORDIA

ABUZTUAK 4 Ostirala

20:00 Kontzertua, Etxaleku tabernan.

Totem & Tabu: Rock and roll, country, pop eta abar bertsoiak.

ABUZTUAK 11 Ostirala

20:00 Sabin Musika: Country bertsoiak eta abesti propioak.

IRAILAREN 6TIK 10ERA

FESTAK



*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

Abuztuaren 5etik irailaren 3ra

OPORRETAN GAUDE



guaixe

fundazioa



Er **viti** aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK Erakusketa Irurtzunen

ESKELA

Jon Etxabe Garitazelaia

Belar giroa heldu da, belar-lanak egiteko sasoi.
Belar-lilien gisan igarotzen da jendea.
Ustez ez daude gurekin,
baina eguzkiaren dirdira ere ezin dugu ikusi,
eta sumatu egiten dugu aurpegian.

Castillo

ESKERTZA



Jesús Ijorra Gamboa

Familiak jasotako dolumin eta maitasun
keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue.

Eskerrak ere, Etxarri Aranazko Osasun
Etxeko eta Gizarte Zerbitzuetako langileei.

Etxekoak

Etxarri Aranatzen, 2023ko uztailaren 25ean

OROIGARRIA

Gorka Echarri Soto

(2016ko abuztuaren 17an hil zen)
VII. urteurrena

Beti
gure bihotzetan

Zure familia



IRAGARKI SAILKATUAK

SALDU

OSASUNA

Audifono digitala (ia berria) merkatuko prezioaren %50 (kargagailua, kablea eta kutxa barne): Audifono digitala, kargagarria, eta bluetooth sistemarekin, Signia Motion C&G SP 2X BG - JCL1118 modelo, 2022ko azaroan erositakoa, eta oso gubi erabilia. Garantiaren barruan dago (2 urte), eta prezioaren barruan tresna saldu zigu audiometristaren lana sartzen da: erabiltzaile berriari audiometria egitea eta audifonoa programatzea (Altsasun). Harremanetarako 665 998 446.

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatutako bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, kumuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LEHIAKETA

Playback lehiaketa Lakuntzako jaietan: Abuztuaren 30ean, asteazkena, 18:00etan, Euskara-aren eguneko egitarauaren barruan Playback lehiaketa antolatuta dute Lakuntzako festetan. Izen ematea abuztuaren 1etik 25era info@lakuntza.eus emailera idatziz. Abesti euskaldun politik aukeratu!

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Bakaikuko jaietako larunbatean, gaueko 23:00ak aldera, puntu urdineko artilezko xal bat galdu nuen Elkarrean ondoan: Aurkitu baduzu, mesedez deitu 639 544 217 telefonora.

OHARRAK

Odol emateak Uharteko Arakilen: abuztuaren 9an, 16:45tik 21:00etara, Aralar Mendi Elkartean. www.adona.es/eu webgunean informazio gehiago.

Odol emateak Etxarri Aranatzen: Irailaren 6ean eta 13an, asteazkenetan, 17:00etatik 21:00etara, Osasun Etxean.

Stop AHT zundaketak bizikleta marxa: Sakana-Goierri-Lautada bizirik Lurraren alde! Abuztuaren 25ean Irurtzun-Olazti eta Agurain-Olazti, 26ean Olazti-Ataun eta 27an Ataun-Irurtzun etapak burutuko dira. Ekimenak, kontzertuak izen eman behar da bizikleta marxan parte hartzeko, egun solteak edo denetan bada ere. 628 243 066 telefonon edo stopahtzundaketak@gmail.com emailera idatziz.

Etxarri Aranatzeko ferrietako azokan parte hartzeko izen ematea zabalik: Lastailaren 1ean ospatuko den ferriaren barruan azokan ekoizle edo artisaun moduan produktuak saltzen egon nahi dutenek izena eman dezakete agorriaren 18ra

arte azoka@etxarriaranatz.eus helbidera idatziz, 948 460 004, 948 460 930 edo 606 239 008 telefonoetara deituz edo udalera gerturatuz. Udalletik azaldu dute, bakarrik aukeratuak izan direnei jakinaraziko dietela parte hartuko dutela agorriaren 23an. Aukeraketarako irizpideak: egindako lanaren kalitatea, Etxarri Aranazko edo Sakanako herritarra izatea, artisaun ziertagiria izatea, azokan bertan norberaren lanaren erakustaldia egitea.

Etxarri Aranatzeko Udalak euskara ikasleendako dirulaguntza bideratu du: Euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei zuzenduta dago, ikastaro estentsibo eta trinkoak, konkretuki. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 6ra arte dago zabalik. Informazio gehiago eta eskabidea egiteko orria www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Udako Sakanako Mintz-kide taldeak: Etxarri Aranatzen asteen behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun asteen behin gozetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Datuz gurekin dohaizki! Izen emateko whatsapp bidaliz 600 482 024 telefonora.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marxa: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea Whatsapp aplikazioko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuti antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen

zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direndako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2

mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko

Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolastan den rol joko bat jarri du marxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erronka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guzitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak bizitzeko. Telegram bidez esteka honetan sar zaitzake: <https://t.me/+ANOUJSCts0M210>

iragarki@guaxe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

• **Luar Vilarino Gomez,** uztailaren 26an Altsasun

EZKONTZAK

• **Johannes Garde Gartzandia eta Dulantzi Lopetegi Ortega,** uztailaren 29an Lakuntzan

HERIOTZAK

• **Augusta Barquilla Pulido,** uztailaren 31n Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaxe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📍 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



UDA SAKANAN